KIROLA: PREFERENTEKO TALDEEK ASTEBURUAN EKINGO DIOTE /10

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko irailaren 3a • IV. urtea • 166. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

European Newspaper AWARD
Goienkaria
ONDOEN DISEINATUTAKO TOKIKO AGERKARIA EUROPAN

XABIER ERRASTI / HISTORIA IRAKASLEA

"Espainiak Marokori kasu egiten badio, urruti dago oraindik Saharako erreferenduma" /9

DEBAGOIENA

Lau debagoiendar omenduko dituzte Artzain Egunean /5

IBAN GARATE

"Bergarako plaza bete egin nahi dugu"

Bergarako plaza jendez gainezka ipini nahi dute bihar, zapatua, *Aupa, Etxebeste!* filmaren egileek. Izan ere, herriko jaiegun bat filmatuko dute 09:00etatik 19:00ak inguru arte, eta dei berezia egin dute Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariek ahalik eta jende gehiena herriko plazara joan dadin. Horiek guztiak filmean agertuko dira, hortaz. Bestalde, hilaren 8rako eta 9rako ere estrak behar dituzte, baina egun horietan parte hartzeko izena eman behar da aldez aurretik. Horretarako, 943 29 25 41 telefonora deitu behar duzue, eta izen-abizenak eta telefono zenbakia eman. /13-15

Goienka2a

ASTEKO GAIA: GURE BI UDALEK, ALDEKO JARRERA

Kalamua legezko egin nahian

Gaur egun Eusko Legebiltzarrean dagoen eztabaida baten lehen ahotsak Debagoienean piztu ziren. Kalamuaren legeztapenaren gaineko debatea da, hain zuzen ere. Izan ere, Eskoriatzako Udalak eskatu du kalamua landatzea eta kontsumitzea librea izan dadila. Arrasateko Udalak ere drogen politika askeagoa iztearen aldeko jarrera ofiziala azaldu du.

Gizartean zegoen eztabaida bat hasi da, hortaz, erakundeetara iristen. Adituen esanetan, litekeena da EAE osoan laster zilegi izatea kalamua botika bezala erostea. Gozamenerako erabileraren gaineko debateak, ordea, itxaron egin beharko du. /3

Joan den urtean baino turista gehiago ibili da udan Debagoienean

Oñati, Bergara, Arantzazu eta Leintz Gatzagako turismo bulegoetako arduradunak pozik daude udako kanpainarekin. Abuztuan, batez ere, jende ugari ibili da Debagoieneko bazterrak ezagutzen. Hain justu ere, Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoetan, bisitari kopurua %10 igo da. Jatorriari dagokionez, azken urteetan moduan, gehienak katalanak izan dira. /4

DEBAGOIENA

Gurutze Gorriko etxea bota eta berria egingo dute

Ibarreko Gurutze Gorriak Elorregin duen etxea bota egingo dute, eta berria eraiki. Oraindik ez dago erabakita non eraikiko duten, baina Elorregin bertan kokatuko dute; litekeena da orain Gurutze Gorriko autoak-eta egoten diren tokian, biribilgunearen ondoan, eraikitzea. Lanok datorren udaberriudan egingo dituzte. /4

Makinak alokatu eta saltzen ditugu
Eraikuntzarako eta obra publikorako

ALKIDEBA

Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea – 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia – Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56

DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

Prezio onenak
aukera itzazu
Etxera berriz ere
Eskolara berriz ere
EROSKI
Erosten jakin

Kalamuaren gaineko debatean, ibarreko udalak aurrekari

Hemengo bi udalek piztu zuten legeztapenaren gaineko eztabaida

LEIRE KORTABARRIA

Udalek ez dute legeak egiteko edo aldatzeko eskumenik, baina, ahal duten neurrian, eztabaida baten aurrean euren jarrera erakuts dezakete. Eta horixe egin dute, hain zuzen, Debagoieneko bi udalek, Eskoriatzakoak eta Arrasatekoak, drogen erabilpenaren inguruan.

Izan ere, udako azken bileran, Eskoriatzako Osoko Bilkurak PSE-EEren mozio bat onartu zuen aho batez; kalamuaren gaineko politikan honako aldaketak eskatzen zituen: landaketa eta norberak kontsumitzea legezkoa izan dadila, eta baita erabilpen terapeutikoa ere, eta kalitatea kontrolatzeko neurriak ezar daitezela. Gero, Arrasateko Udalak beste mozio bat onartu zuen, askatasunean eta arduran oinarritutako drogen kontsumoaren alde eginaz.

Neurri horiek biek ez dute eragin praktikorik izango. Kalamuaren eta legez kanpoko beste drogen erabilera 1/92 Lege Organikoak arautzen du, Corcuera Legea delakoak, eta horrek aurreikusten ditu hainbat milioi euro arteko isunak. Kalamuaren erabileragatik, isun administratiboak ere jasan daitezke.

Udalek ez dute eskumenik legea indarrik gabe uzteko, baina jarrera hartzea positiboa dela dio Iñaki Pierrugues Eskoriatzako PSE-EEko ordezkari eta mozioaren egileak: "Ona da Udalak bere iritzia plazaratzea eta aditzera ematea gai honetan eskuzabalak garela eta ez dugula aurkako aurreiritzirik. Helburua da gizartean bizirik dagoen eztabaida erakundeetara eramatea". Izan ere, egunotan Legebiltzarra lantzen ari da kalamua medikuntzan eta botika bezala erabiltzea legezkoa izan dadin eskatzeko Ez Legezko Proposamen bat. Pierrugues baikor da: "Bere prozesua jarraitzen ari da proposamena, eta onartzen bada, EAEn kalamua botika bezala saltzeko aukera izango da".

EAE Kataluniaren bidetik doa; izan ere, hango gobernuak kalamuaren eratorriak botika moduan saltzea legezko egin nahi du ahal bezain laster.

AREETXAGAZETA

Kalamuaren onarpenean, gizarteak aurre hartu die erakundeei. Irudian, kalamuaren aldeko ekintza bat, Aretxabaletan.

LEGEAREN ZEHAZTASUNIK EZA

Ezer legeztatzen bada, landarearen erabilera terapeutikoa izango da. Horrela, gaixoek errezeta bidez erosi ahal izango dituzte kalamuaren eratorriak. Aurretik, probak egin beharko dira eratorri terapeutikoak zeintzuk diren bereizteko. Kataluniako mediku eta botikariek hori eskatzen dute; izan ere, orain, gaixoek euren kasa hartzen dute kalamua, eta hori oso arriskutsua izan daiteke. Edozein botika bezala, kalamuaren osagai guztiak ez dira medikuntzarako onak. Gainera, gaixo gehienek erre egiten dute kalamua, eta infusio edo pilula moduan hartzea komeni da. Horren kontrola legeztatuz gero bakarrik lortuko da.

> *Eusko Legebiltzarra lantzen ari da kalamua botika bezala saltzeko proposamena*

Erabiltzaileek legeztapena eskatzen dute, besteak beste, gaur egungo egoera nahasia argitzeko. Hala dio Aitor Artzuagak; berak Debagoienean kalamu haziak saltzen dituen denda bakarra du, Arrasaten. Bere esanetan, "legea ez da zehatza. Ustez, ez du zigortzen landare haziak saltzea, horiek ez dutelako printzipio aktiborik (drogarik); baina legea nahasia denez, interpretatzen duenaren arabera dago".

Legeztatu, zergatik bai

MILIOIKA LAGUNEN ESKUBIDEAK
Kontsumitzaileen eskubideak bermatzeko legeztatu egin behar da. Estatuan, bi milioik hartzen du egunero.

KONTSUMO EGOKIA ZIURTATU
Legeztatuz gero, kalamuaren kalitatea kontrolatu ahal izango da.

BOTIKA MODUAN ERABILGARRI
Kimioterapiaren albo-ondorioak eta minbiziaren efektuak arintzen ditu: goralarria, goserik eza, min kronikoa…

MENDEKOTASUN BAXUA
Erlaxatzea eta ondo sentiaraztea dakar; eta mendekotasuna nikotinak sortzen duena baino baxuagoa da.

Aurkako arrazoiak

BURUKO GAITZAK LARRITU
Psikosia, depresioa edo eskizofreniarako jarrera dutenen egoera asko larri dezake.

TABAKOA ERE ERREZ GERO
Birika minbizia sor dezake. Tabakoa ere errez gero, tabakoarekiko mendekotasuna areagotzen du.

ONDORIO KALTEGARRIAK
Nahasmena, kontzentrazio galera eta memoria arazoak sortzen ditu.

ASKOK EZIN DUTE HARTU
Kontraindikatua dago buruko edo bihotzeko gaitzak dituztenendako.

XABIER ARANA / DROGA IKERKETAN ADITUA

"Gozamenerako erabileraz ere jardun beharko da"

Drogen normalizazioaren eta arautzearen aldeko iritzia du Xabier Arana Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzaileak. Bere ustez, "gutxienez, kalamua botika moduan erabili ahal izatearen bidean gaude".

Zer deritzezu Arrasateko eta Eskoriatzako udalek onartutako mozioei?

Drogen gaineko politika aldatu behar da, eta horren harira datoz mozio horiek. Kalamua da gehien kontsumitzen den legez kanpoko droga, eta zentzugabekeria da hori landatu, hartu edo saltzeagatik administrazioarekin edo justiziarekin arazoak izatea. Arrazoizkoena da normalizaziora eta arautze batera jotzea.

Zelan egin beharko litzateke arautze hori?

Alkohola edo tabakoa arautzen diren bezala: kontsumitzailearen funtsezko eskubideak urratu barik, eta adin txikikoak babestuz. Neuk drogen eta tartean kalamuaren erabilpen egokia defenditzen dut: helduek erabil ditzatela; kontsumoa eta kalamua norberak landatzea ez zigortzea; ez esatea drogek ez dutela kalterik egiten, baizik eta norbera arduradun izan dadila kontsumitzeko orduan.

Kalamuaren legeztapena posible ikusten duzu epe laburrean?

Gaur egungo debatea da ea kalamua modu terapeutikoan erabiltzea onartu behar den edo ez, eta nire ustez, prozesu baten ondoren hori onartu egingo da.



Xabier Arana ikertzailea.

Baina beste debate bat da gozamenerako erabiltzea ere legeztatu behar den edo ez. Eztabaida hori interesgarria iruditzen zait, eta horretaz ere jardun behar da. Erabilpen hori arautze aldera, egoki ikusiko nuke kontsumitzaileen klub itxiak sortzea, adibidez: kalamua landatu eta bere produktuak kontsumitzeko leku itxiak, arau batzuekin.

ENEKO AZKARATE

Bergaran 600 lagunek egin dituzte bisita gidatuak, herriko etxe, jauregi eta monumentuak ikusteko.

Joan den urteko udan baino turista gehiago ibili da aurten Debagoienean

Oñati, Bergara, Arantzazu eta Gatzagako turismo bulegoetakoak pozik

AMAGOIA LASAGABASTER

Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoetan bisitari kopurua %10 igo da. Jatorriari dagokionez, azken urteetan moduan gehienak katalanak izan dira.

Oñati, Bergara, Arantzazu eta Leintz Gatzagako turismo bulegoetako arduradunak pozik azaldu dira udako kanpainarekin. Abuztuan batez ere, jende ugari ibili da Debagoieneko bazterrak ezagutzen.

2.182 LAGUN BERGARAN

Bergarari dagokionez, aurten 2.182 lagunek jo dute hango bulegora. Ekainean, 549 bisitari izan ziren, uztailean 605 eta, azkenik, abuztuan 1.028. Iazko datuekin alderatuz, aurtengo udako kanpainan %10,6 igo da bisitarien kopurua. Horietatik, batzuei bisitaldi gidatuak eskaini diete. Guztira, 600 bat lagunek ikusi dituzte bergarako monumentu eta bazterrak.

Bisitarien jatorriari dagokionez, gehienak, abuztuan batez ere, katalanak izan dira. Hurretik, jarraitu diete, baina, madrildarrek ere. Nazioarteko turismoari dagokionez, frantsesak, italiarrak eta ingelesak etorri dira Bergarara.

OÑATIN GEHIAGO

Oñatik, bestalde, askoz bisitari gehiago jaso ditu, 5.270. Ekainean, 1.975 lagun izan ziren hango bulegoan. Uztailean 1.320, eta abuztuan 1.975. Oñatin ere, iazko datuekin alderatuz, turista kopuruaren %10 igo da. Bisita gidatuak eskaini dituzte, baita Natur Ibilbideak ere. Bietan jende ugari ibili da eta gustura daude izandako emaitzarekin. Batez ere, katalanak izan dira nagusi Oñati aldean ere. Espainiako Estatutik etorritako turista kopurua %60 izan da eta horietatik %24 osatu dute katalanek. Nazioartekoek %15 osatu dute eta gehienak Italiarrak izan dira.

> *Oñatiko eta Bergarako turismo bulegoetan, oraingoz, bisitari kopurua %10 igo da*

ARANTZAZU ETA LEINTZ GATZAGA

Arantzazuko bulegora ere jo dute kanpotarrek. Han ere gustura azaldu dira izandako harrerarekin. Azkenik, Leintz Gatzagako bulegoan, abuztuan izan dute lan handiena. Hil horretan, 300 lagunek bisitatu zuten herria eta Gatz Museoa.

Debagoieneko Gurutze Gorriko etxea bota eta berria egingo dute

OIHANA ELORZA

Gurutze Gorriak Elorregin duen etxea bota egingo dute eta berria eraikiko dute. Proiektua guztiz zehazteke dago, baina datorren udaberrian edo udan zehaztuko dute.

Oraindik ez dute erabaki etxe berria orain artekoa dagoen tokian bertan egingo duten edo ez. Egun, eraikinaren aurrealdean dagoen gunean izaten dituzte lanerako behar dituzten anbulantziak eta Land Rover autoa, eta agian hortxe eraikiko dute etxe berria. AP-1 ordainpeko autobidearen obrak bukatu arte ez dute tokia eta gunea erabat aztertuko eta errepide horren lanek baldintza dezakete etxearen kokalekua eta lanak hasteko data.

Nolakoa izango den ere ez dute guztiz zehaztu, baina zerbitzu hobeak izango dituen eraikina egingo dutela aurreratu dute.

BOLUNTARIOAK

Elorregiko Gurutze Gorriko etxean boluntarioek egiten dute lan. Bi lagun daude anbulantzia bakoitzeko eta egun guztian daude. Debagoienean eta inguruetan gertatzen diren istripuak eta ezbeharretan laguntzen dute bertako lagunek.

DEBAGOIENEAN LABUR

‘Euskal Y’-a aurten egingo dutela esan dute Gasteizko eta Madrilgo gobernuek

Alvaro Amann Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Saileko sailburuak esan du aurten hasiko dituztela abiadura handiko trenaren lanak. Horrekin batera, Madrilgo gobernuko Sustapen ministroari, Magdalena Alvarezi, lan horiekin lagundu behar dioten edo ez esateko eskatu dio Alvaro Amannek. Honek, lastertasun handiko trenaren tramu edo atal guztiak urtea amaitu baino lehen zehaztu eta baimendu nahi dituela esan du. Abuztuan egin dituzte adierazpenok bi gobernuetako kideek. Biek proiektuak duen garrantzia azpimarratu dute eta lanak lehenbailehen hasteko asmoa dutela esan dute.

Herritarrei AHTren aurkako mezu eraginkorra nola zabaldu aztertu dute

Informazioa eta kexua azaltzeko kanpaldia antolatu zuen AHTren aurkako asanbladak, Alonsotegin, Bizkaian. Antolatzaileen esanetan, jendea ez da kezkatzen azpiegitura handiek sortzen dituzten kalteen aurrean. Herritarrei informazio hori nola helarazi aztertu zuten, besteak beste, abuztuaren lehen astean egin zuten kanpaldian. Jaia eta aldarrikapena uztartu zituzten eta tailerrak, antzerkia, musika, umeendako animazioa, hitzaldiak, eztabaidak eta aldarrikapen ekitaldiak egin zituzten, besteak beste.

50 auto gelditu dira ibarreko bide ertzetan garabien grebak iraun duen bitartean

Abuztuko azken asteburuan, oporretako itzulera operazioarekin batera, hasi ziren garabi enpresak berriro lanean. Hilabete egin dute greban garabi enpresek, eta Debagoienean 50 bat auto gelditu dira bide ertzean edo konpontzeko tailerretara eraman gabe. Horietatik 15 inguru bide bazterretan gelditu dira eta gainontzekoak etxeetan edo errepideetatik gertu dauden txoko babestuetan utzi behar izan zituzten. Garabietako enpresek eta aseguru etxeek zapatuan sinatu zuten akordioaren ostean, Debagoieneko garabietako gidariek hartu dituzte matxuratutako autoak jasotzera joateko deiak. Euskal Autonomia Erkidegoko garabietako enpresek 15 eguneko epea eman diete aseguru etxeei akordioa lortzeko.

Hiltegiaren baliagarritasun ikerketa egingo du Mankomunitateak azaro amaierarako

Alkateek hiltegia apiril arte zabalik izatea proposatzen zuten, bitartean proposamenak aztertu eta bidea aurkitu ezean, gero hiltegia ixtea. Arrasaten, alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zen proposamen hori. Bergaran ere onartu egin zuten. Oñatin, berriz, hiltegia urtebetez luzatzea onartu zuen Osoko Bilkurak, eta sektoreari azaroaren 30a baino lehen hiltegiaren baliagarritasun plana aurkezteko eskatu. Aretxabaletan, Mankomunitateari eskatu diote hiltegiaren egoera azaroaren 30a baino lehen aztertzea eta kaltetuei irtenbideak azaltzea. Eskoriatzan, berriz, kudeaketari buruz beste alternatiba bat aurkitu arte hiltegia zabalik edukitzea.

Gipuzkokako Batzar Nagusien eraikin berria egiteko 58 proiektu aurkeztu dituzte

Donostiako Miramon parke teknologikoan eraikiko dute Gipuzkoako Batzar Nagusien erakin berria. Orain, etxebizitza hori nolakoa izango den erabaki behar dute. Proiektuen lehiaketara 58 ideia-diseinu aurkeztu dituzte eta urriaren 1ean hartuko dute azken erabakia. Erakin berriak gonbidatuak esertzeko tokia duen osoko bilkuren aretoa izango du, 200 metro koadro baino gehiago izango dituen aretoa. Honez gain, lur azpiko aparkalekua izango du, eta oraingoak baino segurtasun kontrol hobeak. Aurkeztu dituzten proiektu gehienak Gipuzkoako arkitektoenak dira.

Gipuzkoako erliebearen mapa digitala egingo du Diputazioak laster

Gipuzkoako Foru Aldundiak 600.000 euro zuzenduko ditu Gipuzkoako erliebearen mapa digitala egiteko. Lidar Gipuzkoa du izena proiektu honek eta probintziako eraikin, baso eta bestelako maila guztiak erregistratuko ditu, hiru dimentsiotan. Erliebearen azterketa airez garraiatzen den altimetro laser baten bidez egingo da eta Diputazioak orain duen mapa baino hamar aldiz hobea izango da berri hori. Urtebete barru amaituta egongo da erliebearen txostena. Azpiegiturak diseinatzeko edo lurralde-plangintzak egiteko erabiliko da txostena.

Lau debagoiendar omenduko dituzte domekan, Legazpin, Artzain Egunean

Euskal artzainei omenaldia egingo diete domekan Legazpin; tartean, ibarreko lau artzaini

GOIATZ ARANA

Fermin Munduate, Gregorio Arrexola, Pedro Bengoa eta Frantziska Lete Debagoieneko artzainak omenduko dituzte domekan Legazpin, Gipuzkoako Artzain Egunean. Txapelketa eta erakusketa ere izango dira.

Domekan, Gipuzkoako Artzain Eguna egingo dute Legazpin, eta txapelketa eta erakusketa artean, bost euskal artzain omenduko dituzte. Horietako lau debagoiendarrak dira.

Eskoriatzako Romalate baserriko Fermin Munduate da omenduko dituzten artzainetako bat; 64 urte eskaini die ardiei. Fabrikara joateko bi eskaintza izan ei zituen bere garaian, eta amak harako bidea hartuta asmatuko zuela esaten omen zion. Aitak, ordea, baserritik bizimodua aterako zuela. Aitari moduan, Fermini ere gustatu egiten zitzaion ardiekin lan egitea, eta horixe egin du urte hauetan guztietan. Oraindik ere baditu ardiak eta anaiak eta ilobek laguntzen diote horiek gobernatzen.



GOIATZ ARANA

Frantziska Lete eta Fermin Munduate dira domekan, Legazpin, Gipuzkoako Artzain Egunean, omenduko dituzten bi debagoiendar.

ARETXABALETAKO SENAR-EMAZTEAK

Fermin Munduaterekin batera, Oñatiko Eurgina baserriko Gregorio Arrexola eta Aretxabaletako Urzabaleko Pedro Bengoa eta Frantziska Lete senar-emazteak eta Itxasoko Migel Usabiaga ere omenduko dituzte domekako Gipuzkoa Artzain Egunean.

Artzaintza kontuei buruz "etxeko maisua" senarra dela esan digu Frantziskak, berak lagundu egiten diola, arkume garaian batez ere. Gogoan ditu, oraindik, senarrak eta biek Degurixan igarotako udak. Egun ere badituzte ardiak, 60 inguru, eta suinak laguntzen die horiekin. Domekarako egindako gonbidapenari, berriz, ezin ezetzik esan.

EGITARAU OPAROA

Urtero egiten dute Legazpin Gipuzkoako Artzain Eguna, irailaren lehen domekan. Egunak euskal artzainak omentzea du helburu, eta egitarau oparoa antolatzen dute.

Artzainei egindako omenaldiarekin batera, gazta, artzain txakur eta ardiekin lehiaketak, artisau eta latxa arrazako ardien erakusketak antolatu dituzte, besteak beste.

Nekazarien proiektu berriak saritu

OIHANA ELORZA

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak nekazariek izan ditzaketen proiektu berritzaileak saritu nahi ditu, eta horretarako, lehiaketa antolatu du, *Lehen ideien eta proiektu berritzaileen sariketa*, hain zuzen ere.

Proiektuaren gaia edozein izan liteke. Adibidez, ohiko produkzioan oinarrituta, aldaketa edo produktuari balio erantsi handiagoa ematea lortuko luketen ekimenak. Gure ibarrean ezagunak diren produkzioetatik kanpo nekazaritza arloan egin daitezkeen ekimenak, produkzio, eraldaketa nahiz komertzializazio arloan. Baita nekazaritza jardueratik kanpo egin daitezkeenak ere, ingurumen, ohitura eta kultura arloetan, adibidez.

OINARRIAK ETA EPEAK

Proiektuaren betebeharrak hiru baino ez dira: Debagoiena ibarrean egiteko modukoa izatea, ibarrean bertan gauzatu gabeko proiektua izatea eta txosten bat aurkeztea. Txosten horretan, ideiaren helburua, arrazoia, proiektuaren garapen memoria eta aurrekontua azaldu beharko dira. Bi sari emango dituzte eta baita proiektua lantzeko 3.000 euroko beka ere, eta jarraipen laguntza eskainiko da.

Txostenak Deba Garaia elkartera bidali behar dira irailaren 20a baino lehen. Informazio zabalagoa 943 76 25 47 telefonoan emango dute.

Asier Altzelai oñatiarra aske utzi dute

Martitzenean, goizeko bederatzietan utzi zuten aske Soriako espetxetik Asier Altzelai *Aldai* oñatiarra. Kanpoan zain zituen senide eta lagunak, eta elkarrekin egin zuten Euskal Herrirako bidea. Iluntzean, zazpietan, ongietorria egin zioten herrian. *Aldai*-k hiru urte egin ditu preso, eta horrenbestez, osorik bete du 1992an, duela 12 urte, kale borroka ekintza batean parte hartzea egotzita ezarri zioten zigorra. Omenaldia, berriz, datorren zapatuan egingo diote, irailaren 11n. /O.E.

Etxera bueltatu dira gurean udan egon diren ume sahararrak

AMAGOIA LASAGABASTER

Bi hilabete egin dituzte gure ibarrean Saharako kanpamentuetatik etorri diren umeak, eta aste honetan bueltatu dira etxera. Merienda egin zuten, Arrasaten, hemen egin dituzten lagun guztiak agurtzeko.

Aste honetan, hilaren lehen egunetan, bueltatu dira etxera udan Debagoienean egon diren 12 ume sahararrak. Hemengo familiak utzi, eta kanpamentuetan daude berriro umeak.

Arrasateko Nubi elkartearen bitartez Debagoienera etorri diren 12 ume saharar gehienak lehen aldiz egin eta ikusten dituzten gauzak eta tokiak bisitatu eta ukitu dituzte. Lagun berriak egin dituzte, itsasoan bainatu dira eta janari goxoak probatu dituzte. Batzuk pozik zeuden etxera bueltatzeko, baina beste asko triste zeuden kanpamentuetara bueltatzeko bezperan.

AMAGOIA LASAGABASTER

Arrasaten merienda egin zuten, hemen egin dituzten lagunak agurtzeko.

DATORREN URTEAN BERRIRO

Umeak ez ezik, haiek jaso dituzten ibarreko familiek ere gustura pasa dute uda, eta esperientzia positiboa izan dela esan dute. Nubi elkarteko kideak ere oso pozik daude aurtengo esperientziarekin, eta datorren urtean errepikatzeko asmoa dutela adierazi dute. Ahal izanez gero, aurten baino ume gehiago ekarriko dituztela esan dute.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

Euskara, galegoa eta katalana aldarrikatzeko eguna antolatu dute

'Gu eta gure hizkuntzak' eguna irailaren 18an egingo dute Oñatin

OIHANA ELORZA

Euskara, galiziera eta katalana aldarrikatu eta entzuteko eguna izango da. Lurralde bakoitzeko herritarrak izango dira Oñatin, euren gastronomia, poesia, festa, musika eta hizkuntza erakusten. Egun osoko festa izango da.

Gu eta gure hizkuntzak eguna antolatu du Laixan euskara elkarteak Oñatin irailaren 18rako, Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako herritarron hizkuntza aldarrikatzeko eguna. Irailaren 18an, hiru hizkuntza entzungo dira Oñatin.

Hiru lurraldeetako herritarrak etorriko dira Oñatira, eta nork bere lurraldeko musika, festa, gastronomia eta hizkuntza erakutsiko ditu.

CASTELLERSAK

Irailaren 18an, egun osoko festa izango da Oñatin, hiru hizkuntzatan.

Goizetik, hiru lurraldeetako musikarien doinuak entzungo dira herriko kaleetan. Eguerdian, berriz, Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako gastronomia dastatzeko aukera izango da plazan. Adibidez, taloak, olagarroa, ribeiroa, pantumaka eta sagardoa.

Gastronomia festarekin batera, hiru hizkuntzatan mintzatuko diren aurkezleek dantzari eta txistulariekin batera aurkeztuko dute eguna. Segidan, Vendrelleko castellersek erakustaldia egingo dute herriko plazan. Zortzi pisuko dorrea egingo dute. Hori egiteko, ehun lagun etorriko dira Kataluniatik Oñatira.

'IRAKURKETAK, KANTUAK & HIBRIDOAK'

Horixe da gauerako antolatu duten ekitaldiaren izena. Bernardo Atxaga idazlea, Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez eta Joan Piris musikariek hartuko dute parte ekitaldian, beste gonbidatu batzuekin batera. Gaueko ekitaldi horretan, poesiak eta testuak irakurri eta errezitatuko ditu Bernardo Atxagak, alboan izango dituen musikariek lagunduta.

Iluntzean, Euskal Herriko, Galiziako eta Kataluniako poeten lanak biltzen dituen liburua aurkeztuko dute Santa Ana antzokian. Aurkezpenaz gain, poesia irakurketa ere izango da, eta Harkaitz Cano, Tere Irastortza eta Galiziatik eta Kataluniatik etorriko diren poeta banak hartuko dute parte, besteak beste.

EGUN BAT HIRU HIZKUNTZATAN

Gu eta gure hizkuntzak egunaren bezperan ere, ekitaldi berezi bat egingo dute kultura etxean. Elkar Hezi ikastetxeko ikasleek antolatuta, olerkigintzaren inguruko solasaldia eta poesia irakurketa egingo dute. Herriko ikasleek eta Galiziatik eta Kataluniatik etorriko diren poetek hartuko dute parte.

*Gu eta gure hizkuntza*k egunak euskara, galiziera eta kataluniera aldarrikatu nahi ditu, eta irailaren 18an, hiru hizkuntzatan hitz egin eta biziko da Oñatin.






ARGAZKIAK: GOIENKARIA, ARGAZKI PRESS, ELKAR ARTXIBOA

Ruper Ordorika, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano eta Juan Carlos Perez.

Irailaren 18an, euskara, galegoa eta katalana entzungo dira Oñatin

Ehun lagun datoz Vendrelletik, herriko plazan zortzi pisuko castellersa egiteko

Egun osoan, hiru hizkuntzatan argitaratutako hiztegitxoa banatuko dute

'Gu eta gure hizkuntzak' eguneko gitaraua

IRAILAK 17, egubakoitza

Arratsaldean: Olerkigintzaren inguruko solasaldia eta olerki errezitaldia, Elkar-Heziko ikasleek antolatuta.
- Olerkariak: Galiziatik, Xose M. Alvarez Caccamo eta Kataluniatik, Miquel Desclot.
- Lekua: Kultur Etxean.
- Sarrera: doan.

IRAILAK 18, zapatua

11.30: Kalejira gaitero galiziar, trikitilari eta txistulariekin.

12.30: Jaialdiaren hasiera: txalapartariak, bertsolariak, txistulariak, trikitilariak, dantzariak eta gaiteroak.

13:00: Gonbidatuei harrera eta Kataluniako castellersak, euren musika taldearekin.

19.30: Poesia errezitaldia. Harkaitz Cano, Tere Irastortza, Miquel Desclot eta Xosé M. Álvarez Caccamo.

Horren ondoren: *Poesia Antologia, Galeusca (2003-2004)* poema liburuaren aurkezpena, Euskal Idazleen Elkartearen eskutik.
- Lekua: Santa Ana antzokian.
- Sarrera: doan.

22.30: Jaialdia: *Irakurketak, kantuak & hibridoak.*
- Parte-hartzaileak: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez, Joan Piris eta gonbidatuak.
- Lekua: Kiroldegiko pilotalekuan.
- Sarrerak: aurrez, Laixanen, Kultur Etxean, Turismo Bulegoan eta ohiko tabernetan, 8 eurotan. Egunean bertan, txarteldegian, 10 eurotan.

Goiz osoan: Galiziako, Kataluniako eta Euskal Herriko gastronomi dastaketa izango da plazan.

Egun osoan: hiru hizkuntzatan argitaratutako eskuko hiztegitxoa banatuko da.

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
EUSKO JAURLARITZA

EIBARKO HEOk matrikula ofizial epea iraileko 15etik aurrera izango dela adierazten du.

OHARRA:
- **2. edo 3. mailara sartzeko:** Autokokapenerako 1. eta 2. mailako testak irailaren 1etik 17ra Eskolako Idazkaritzan hartzeko aukera izango du hala nahi duenak.
- **4. edo 5. mailara sartzeko** maila probak honako atalak izango ditu:
  - Autokokapenerako 3. eta 4. testak irailaren 1etik 17ra Eskolako Idazkaritzan hartu beharrekoak.
  - Proba idatzia eta ahozkoa.

Informazio gehiago: Jardiñeta, 3 bis - **20600 EIBAR**
Tfnoa.: 943 20 06 18
E-maila: eoieibar@euskalnet.net - **www.eoieibarheo.net**

C&C *Matrikula zabalik!*
LLONGUERAS AKADEMIA
IRAKASKUNTZA ZENTROA
Ez zaitez gutxiagorekin konformatu



Ile-apainketa eta estetika
- Titulu ofiziala
- Erresuma Batuan 3. maila
- Llongueras titulua

Olagibel kalea 61 B, GASTEIZ.
Tel.: 945 12 03 60
Posta-e: ces-llongueras@ya.com

ANTZUOLA

Haurtzaindegia egiteko lanak abuztuan hasi zituzten

Hasiera bateko asmoa lanak irailean hastea zen arren, azkenean, abuztuan hasi zituzten; horrela, Herri Ikastetxean eskolak hasi aurretik lanik zaratatsuenak eta zikin handiena sortzen dutenak bukatuta egongo dira.

Udalak espero du otsailerako haurtzaindegia zabalik egotea. Horretarako, irailean edo urrian zabalduko dute aurrematrikulaziorako epea.

Bi gela egongo dira: 0 eta 1 urte bitartekoen gelak zortzi bat plaza izango ditu; 1 eta 2 urte bitartekoenak, berriz, hamabi bat. /A.I.

U.M.

ARRASATE

Zuhaitz asko bota beharko dituztela uste du Udalak

Oraingo astean iritsi da udaletxera Monterron parkearen gaineko ikerketa. Abuztuan parkeko zuhaitzen egoeraren ikerketa egiten ibili dira zenbait aditu. Izan ere, zuhaitzetako asko gaixo daudela ikusita, parkearen egoera oso-osorik ikertzeko adituak ekarri dituzte Arrasatera. Udaleko Zerbitzu Saileko buru Joseba Ugaldek adierazi digunez, duten susmoa da zuhaitz asko bota egin beharko dituztela. Aipatu beharra dago zuhaitz gehienak oso zaharrak (orain dela 150 urtekoak-edo) eta garaiak direla. Zerbitzu Saileko buruak gaineratu digunez, orain jasoko dituzten emaitzak Diputazioan kontrastatuko dituzte, eta horren ostean erabakiko du Udalak zer egin. Era berean, herritarrei informazio zuzena helaraziko dietela adierazi zigun. /U.M.

ARETXABALETA

Arantzazura erromesaldia egingo dute astelehenean aretxabaletarrek

Ohiturari jarraituz iraileko lehenengo astelehenean Arantzazura hurreratuko dira aretxabaletarrak. Helburua da Amabirjinaren bederatziurrenean parte hartzea. Batzuk oinez joango dira, zinegotziren bat edo beste ere bai, eta beste batzuk Basotxo Erretiratuen Elkarteak antolatutako autobusetan. Meza entzungo dute lehenengo, 12:00etan, hain zuzen, eta horren ostean bazkaltzera geldituko dira gehienak. Udalbatzak Zelai Zabal jatetxean bazkalduko du, eta herritarrek Arantzazuko Hospederian. /M.A.

ARAMAIO

Nazioarteko zenbait abesbatzak kontzertuak egingo dituzte Araban

Vital-Kutxako Gizarte-Ekintzak antolatuta, nazioarteko zortzi abesbatza Araban barrena ibiliko dira kontzertuak egiten. Ibilbide horren barruan, Errusiako Ars Viva abesbatzak Aramaio bisitatuko du datorren eguaztenean, hilak 8. Hain zuzen ere, kontzertua egingo dute, parrokian, 20:30ean hasita.

Horrez gainera, bihar, zapatua, eta barikuan (hilak 10) abesbatza guztiek kontzertua egingo dute Gasteizen.Biharkoa San Migel parrokian izango da 10:30ean. Eta hurrengoa Printzipalen, 20:00etan /U.M.

ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak 1.273.000 euro jasoko ditu Izartu programari esker

Eskoriatzako Udalak 1.273.000 euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Izartu programari esker eskuratuko du dirua eta herrian zenbait lan egiteko erabiliko du. Laguntzarekin, Aranburuzabala kalea eta Dorleta eta Santa Marina auzoak birgaitzeko asmoa du Udalak. Lanak egiteko, 4.250.000 euro aurreikusia zuen Udalak; Izartu programak %30 eman dio. Datorren urtean hasita, 2008. urterako guztia egiteko asmoa dutela adierazi du Josu Ezkurdia Eskoriatzako Hirigintza zinegotziak. /Z.V.M.

OÑATI

Zubikoa kiroldegiko taberna zabalik dago maizter berriekin

Lau hilabete pasatxo egin ditu itxita Zubikoa kiroldegiko tabernak. Eguaztenean, berriro zabaldu zuten, maizter edo errentari berriekin. Edatekoaz gain, jatekoa ere eskainiko dute hemendik aurrera.

Apirilean itxi zuten kiroldegiko taberna udal arduradunen erabakiz, bertako funtzionamendua egokia ez zelako. Lehiaketa publikoa egin ostean, Roberto Lizarraldek hartu du tabernaren ardura, eta dagoeneko zabalik dago. Astean zehar, taberna zerbitzuaz gain, pintxoak eta ogitartekoak prestatuko dituzte maizter berriek, eta egubakoitz eta zapatuetan, plater konbinatuak ere emango dituzte.

HUTSUNE HANDIA

Berriz ere taberna zabalduta, hainbat eta hainbat herritarren gogoa bete da. Izan ere, jende askori eskaintzen dio zerbitzua kiroldegiko tabernak. Itxita egon den bitartean jende askok galdetu omen du tabernagatik.

Tabernak hiruzpalau maizter desberdin izan ditu azkeneko bospasei urteetan. Kiroldegiko arduradun Gerardo Eskartzak jarraitasuna igarri du faltan, hainbeste maizter aldaketak zerbitzuaren kalitatean eragina omen duelako. Lizarraldek esan du eurek tabernan urtetan egon nahi luketela. Hala ere, asko jota bi urtean egon ahal izango dira maizter berriak tabernan; kiroldegia handitzearekin taberna lekuz aldatuko dute eta berriz ere lehiaketara aterako dute. /JULEN IRIONDO

Zertzelada

Astean zehar, taberna zerbitzuaz gain, pintxoak eta ogitartekoak izango dituzte; egubakoitz eta zapatuetan plater konbinatuak ere bai

BERGARA

Urteagako lanak urrian hasi eta 2005 urteko abenduan amaituko dira

Diputazioko Bide Azpiegituretarako Departamentuak agindu duenez, urrian hasiko dira Urteaga kaleko lanak. Bergaratik Antzuolara joateko errepide zaharra itxita dago joan den azaroa ezkero, Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ondoren.

Lanak bi fasetan egingo dira. Lehenbizikoan trenbide zaharreko ibilbidea eusteko lanak egingo dira. Lehen fase hori 2005eko urtarrilean bukatuko da. Bigarren fasea apirilean hasiko da eta mendimazelari eustea du helburu. Lurraren ezaugarriak direla eta, zailtasun handiko lana da. Lanen aurrekontua, guztira, lau milioi euro da. /E.M.

ARTXIBOA

Bergaratik Antzuolarako irteera azaroa ezkero dago itxita.

ELGETA

Kirol instalazioak zabalik daude, taberna oraindik itxita dagoen arren

Kiroldegiko tabernaren ardura hartzeko inork ez du izena eman, eta irailean berriz ere deialdia egitekotan dira oinarrietan aldaketak egin ostean. Edozelan ere, pilotalekua egunero egongo da zabalik 09:00etatik 21:00etara. Gainontzeko instalazioak, berriz, astelehen, eguazten eta barikuetan 18:00etatik 22:00etara eta martitzen eta egunetan 17:45etik 22:00etara. Zapatuetan goizez bakarrik irekiko dituzte 10:00etatik 14:00etara eta domeketan itxita egongo dira. /IRATI AGIRREALDEGI

GATZAGA

Gaur gaueko rock kontzertuarekin hasiko dira Andramaixak

Egitarau zabala antolatu dute Gatzagan gaur hasiko diren Andramaixetarako. 23:00etan rock kontzertua egongo da herriko plazan eta gazte ugari gerturatuko direla uste dute antolatzaileek. Bihar egun handia izango da, umeen eguna ospatuko baitute, eurentzako antolatutako askotariko ekintzekin. Eguaztenean —Amabirjinaren Egunean— ohiturari jarraituz, otxandiarrak Gatzagara joango dira eta lehenengoz, bi herrien arteko lehia egingo dute, harremanak sendotzeko asmoz. /Z.V.M.

Zabalik



EDORTA MENDIETA

Ona, polita...

Zuek gehienok, neu bezala, oporretatik bueltan poltsikoa erdi utzik etorriko zineten, ala ez? Eta orain hozkailua berriz toperaino bete behar, automobilaren errebisioa, telefonoaren faktura (ah, zenbat gustatzen zaien batzuei telefonoan orduak eta orduak ematea!), ihartutako lore guztiak berriztatu... Eta eskerrak umerik ez daukadala! Bestela, umezaintzako matrikula eta kuotak, testu liburu berriak... Zer uste zenuten ba, oporrak bukatzearekin batera diru apurren bat aurreratzeko momentua iritsia zela? Ja!

Baina zuek lasai, datuek diotenez Europako laugarren Estaturik merkeenean bizi ei gara-eta. Hori da Eurostat-ek egindako bi ikerketek ematen dituzten datuetatik antzeman daitekeena. Eta, dakizuenez, datuak datuak dira.

Ikerketok diotenez, eguneroko produktuak Europako merkeenetarikoak dira Estatu Espainolean. Batez bestekoa baino %19 merkeagoak. Gure erosketa ahalmena ere Europako batez bestekoa baino baxuagoa da, baina %5 baino ez. Ondorioz, egoera *kojonudoan* bizi gara.

Zer esango dizuet ba..., ni ez nahiz horregatik lasaiago gelditu. Eta ez datuak sinisten ez ditudalako, baina... pasatuko ote ziren Eurostat-ekoak hemendik? Hala bada, gaixoak, ranking honetan gure gainetik gelditu diren beste 27 Estatuetako biztanleak.

Kontuak kontu, batek baino gehiagok gorriak eta bi ikusi behar izaten ditu hil bukaerara iritsi ahal izateko. Eta ikusirik prezioek izan duten bilakaera Eurora aldatu ginenetik tris-tras batean jango dugu prezioetan omen dugun %19ko abantaila hori. Ezetz soldatak erritmo berean hazi? Apusturik egin nahi?

Gutunak

Iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea ipini beharko dira.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com

Gezurra esan nuen Leitzan, laster zen Debagoienean

Aspalditxo erabaki genuen Aralarrek hedabideen bitartez (beste jardunbiderik ez dute ia) gure aurka zabaltzen zituen istorioei erantzun publikorik ez ematea.Azkenean, eta gure printzipioen defentsa egiteagatik, erantzutea erabaki dugu.

Gure herriaren historian inoiz egin diren hauteskunde ez demokratikoenak izan ziren 2003ko maiatzean ospatu zirenak. Ezker Abertzalearen alor instituzionala legez kanpo utzi baitzuten.

Alderdi guztiek egoera honetaz probetxua atera eta beraien bozka poltsak bete zituzten. Inongo eskrupulurik gabe karguen banaketari ekin zioten, herritarren borondateari bizkarra emanaz.

Aralarrek 3 zinegotzien karguak hartzeke utzi zituen Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaran. Egia da keinu bat egin zuten ia bakarrak izan zirela, baina egia handiagoa da kargu hauek bahiturik dauzkatela, eta herri plataformei ez dizkietela utzi beraien zinegotzien eskubideak berma daitezen.

Lapur eta bahitzaileen arteko desberdintasunak handiak dira, baina kasu bietan eskubideak urratzen eta ez dituzte onartzen. Aukerak badaude, Lizartzan jorratutako bideak horrela erakusten du. Lizartzako proposamena aspaldi jaso zuten gure eskualdeko alderdi desberdinek. Guri legez kanpo uzteko erabili duten lege berdinak aukera hau eskaintzen baitu, hau paradoxa. Borondate politikoa besterik ez da behar, eta momentuz inork ez du horrelakorik erakutsi.

Aralarrek proposamen bat egin zuen, aholkularitza batzordea eta pleno paraleloak..., baina non jarri dute hau martxan? Ezta Leitzan ere, eta hau zen plataformarekin adostutakoa, ez zinegotzia lapurtzearena. Proposamen hau beraiek jarri behar dute martxan, geuk ezin dugu ezta onartu ere egin, ez dago gure esku. Beraz, utzi bazterrak nahasteari eta zerbait egin dezatela.

Gainera, proposamen honek ez ditu gure zinegotzien eskubideak bermatzen, beraz azkeneko hau lortu arte lanean jarraituko dugu.

Urtebete luze pasatu da apartheid egoera instalatu zutenetik, oso gogorra, baina isolamendu politiko hau gainditzeko urratsak ematen ari gara. Bitartean beste alderdi guztiek beste alde batera begiratzen dute, salaketa hitzak, gure eskubideak bermatzen ez duten proposamenak egin, baina inoiz ez gaia bere sakontasunean jorratu.

Kurtso politiko berrian garrantzi handiko gaia izango da guretzat, inflexio puntua markatu dugu, honaino iritsi gara, eta apartheidari eremuak irabazteko ahaleginak egingo ditugu. Lehena lapurtutako eta bahitutako zinegotziak berreskuratzea izango da. Aukera eta proposamena ezagutzen dute, orain urratsak ematea tokatzen zaie. Gure eskualdeko udal guztietan demokrazia berreskuratu behar dugu.

ARETXABALETAKO BATASUNA
Debagoiena

Hemeroteka

Regresioa

Euskara hizkuntza eta telebista publikoa: bi ideia-bikote hauek uztagarriak ote? Galdetzea ere… Ez gaude 1980an, lagun, dena egiteke zegoen garaian urrun hartan, XXI. mendean ongi sarturik baizik. Eta denboraren poderioz dena aldatuz etorri da, bai horixe: duela hogeita bost urte egiteke zirudiena… egin gabe dago orain. Hogeita bost urte pasa ondoren, horra aldaketarik funtsezkoena. Nork pentsatzen du ETB1, egun, egiazko telebista bat denik? Ez naiz hasiko egiazko telebista bat zer den definitzen. Sentsazio orokor bati buruz ari naiz gaurkoan. Katez aldatzerakoan euskarazkoan erorita hamarretik bederatzitan sentitzen den horretaz.Nork sentitzen du ETB1 egiazko telebista bat denik? Bat: arrakasta kuantitatiboa balio nagusia dugun egungo gizarte ereduan ETB1 ez da inoiz arrakastara hurbildu ere egin. Bi: ETB1eko arrakasta kualitatibo "ezaz" ezin hitz egin, hemen eta orain, injustitzia larrietan erori gabe (ETB1eko profesional onak mindu gabe). Laburtuz: euskarazko katea kudeatzen dutenak —erdarazkoa kudeatzen duten berberak— ez dira inoiz gauza izan programazio arrakastatsu bat antolatzeko. Baina oraingoan "regresio" batera eraman gaituztela ematen du benetan: hogeita bost urte pasa eta gero, inork sinesten al du Iurretan, Miramonen (Lakuan, nahi baldin baduzue) euskaraz telebista egitea "merezi" duenik? Bertatik, ordea, zera adierazten zaigu: 2004. urtean telebista egitea merezi merezi duela… gazteleraz eta ETB2n. Mezu hori bai jasotzen dugu. Baina sekulan ez gauza bera euskarazko telebistaren inguruan, kontrakoa baizik: ezetz, ez duela merezi. Merezi ala ez… Nork dauka gogorik honelako eztabaida metafisikoetan murgiltzeko? Konponbidea askoz ere sinpleagoa da: merezi ez duela uste dutenei agindua kendu, eta merezi duela uste dutenei eman.

FERMIN ETXEGOIEN
Berria (2004/09/02)

Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bake Planerako nazioarteko begirale gisa joan zen *Jerras* Saharara, 1991n, eta harrezkero lotura estua du herrialde harekin. Orain, arkeologia proiektu bat bultzatzen ari da, hango haitzuloetako aztarnak ikertzeko, hain zuzen ere.

OIHANA ELORZA

OIHANA ELORZA

Xabier Errasti

HISTORIA IRAKASLEA ETA SAHARAKO LAGUNA

"Espainiak Marokori kasu egiten badio, urruti dago oraindik Saharako erreferenduma"

NBE-REN BAKE PLANA

"NBEk sinatutakoa betearazi beharko lioke Marokori, baina hori egin ordez, prozesua luzatu baino ez du egiten; NBEk ez du ezer egiten"

ETORKINEN EGOERA

"Asiatik etorri beharrean, Saharako bidea erabiltzen hasi dira trafikante asko. Paper guztiak kentzen dizkiete eta jateko eta edateko barik uzten dituzte"

Oraindik ez zaie iritsi erreferendumerako aukera saharararrei.

Orain dela hamar urte zabaldu zen erreferenduma egingo zela, eta oraindik ez da egin. Familia asko erdibituta daude; senide batzuk kanpamentuetara joan ziren eta beste batzuk okupatuak izan diren lurraldeetan gelditu ziren. Bake Planarekin, Baker sartu eta aukerak zeudela ikusten zuten, baina Marokok oztopoak jarri dizkie beti. Zerrenda egin zuten, baina Marokok trabak jarri eta ez zien utzi erreferendumik egiten. NBEk babestutako azken akordioan, orain hauteskunde autonomikoak egingo dituztela esaten dute, eta bost urteko epean, berriz, erreferenduma.

Egoera gogorra da eta jendea nekatuta dago. Batzuk hasi dira pentsatzen gerrarekin ez zutela ezer irabazi eta borrokara bueltatu behar dutela. Beste batzuk, aldiz, borroka bizi duten egoera baino gogorragoa dela diote.

Miguel Angel Moratinos Espainiako Atzerri ministroak esan du arazoa konpondu behar dela baina Maroko eta Frantziaren jarrera aztertuta.

Ez dizkiot azken egun hauetako adierazpenak entzun Moratinosi, baina Marokoren jarrera zein den ondo dakit, eta kasu handia egiten badiote, irtenbidea urruti dago oraindik. Eta Frantziak, berriz, Maroko babestu du beti.

Felipe Gonzalez Espainiako presidentea zen garaian, ez zuten lagun bat ere egin. PSOEko askok, eta Felipe Gonzalezek berak ere bai, negozio asko egin zituzten Marokon eta gaizki portatu ziren. Alderdi Popularra NBEren alde azaldu zen, eta Zapaterok gobernua hartu eta gutxira esan zuen 40 egunean konponduko zuela arazoa.

NBE lanean ari da.

Saharan dauden NBEko ordezkariek ez dute ezer egiten, eta hori txarra da. Sahara Afrikako kolonia bakarra da eta hori amaitu egin behar da. Marokok borrokak hasi eta harresiak egiten ditu. NBEk sinatutakoa betearazi beharko lioke Marokori, baina prozesua luzatu baino ez du egiten; ezer ez.

Noiztik zara Saharako laguna?

1991n, Bake Plana zela-eta, nazioarteko begiraleak behar zituztela-eta, izena eman nuen. Urte hartan bertan joan nintzen, lehenengo aldiz, eta maitemindu egin nintzen hango paraje, desertu eta saharararrekin, batez ere.

Hemendik hara jende asko joaten da eskolak eraikitzera, ospitaleetan laguntzera edo ingeniaritza lanak egitera. Nik ez dakit horrelako lanik egiten eta orduan, Euskal Herritik laguntzea erabaki nuen. Hemengo Fronte Polisarioko taldearekin jarri nintzen harremanetan, eta saharararrek bizi duten egoera azaltzeko egin behar den guztia egiten saiatzen naiz.

Duela bi urte, argazki erakusketa bat egitea pentsatu zuen elkarteak. Sahara mendebaldea erakusten duen erakusketa. Hau da, lurralde liberatuetan eta okupatuetan atera genituen argazkiak.

Ekainean arkeologiak eraman zintuen berriro Saharara.

Bai. Historiako irakasle izan nuen lagun batek arkeologia proiektu bat bultzatu nahi zuela esan zidan, eta elkarrekin joan ginen.

Eta noizko eta nolako aztarnak aurkitu dituzue?

Gauza interesgarri asko aurkitu ditugu. Duela 10.000 urteko margoak ikusi ditugu haitzulo batean; jirafak eta erinozero irudiak ikusi ditugu margotuta. Lurrean ere, harri handi batzuetan, grabatu batzuk aurkitu ditugu. Aztarna asko daude eta orain horiek aztertu eta gehiago ote dauden ikusi nahi dugu.

Noiz hasiko zarete lan horretan?

Orain proiektua aurkezten ari gara. Gero, dirua behar da ikerketa egiteko, baliabideak, materiala behar da eta hori lortzeko gestioak egiten ari gara. Badakigu Fronte Polisarioak duen dirua kanpamentuetarako elikagaiak erosteko, eskolako materiala bidaltzeko eta horrelakoetarako behar dutela, eta gu Euskal Herriko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez nahi dugu bideratu proiektua.

Dena dela, gure asmoa proiektua abiatzea baino ez da. Ekipamendua eraman eta hasierako lanak geuk egingo ditugu, hango lagunekin batera, baina gure asmoa indusketa lanak saharararrei uztea da, lanekin haiek jarraitzea. Dena ondo ateratzen bada, martxoan joango gara.

Arkeologia lanetara joan, eta etorkinen egoera gertutik ikusi zenuen.

Bai. Aztarnategiak ikusi eta bueltan gindoazela, indiar batzuen berri eman ziguten militarrek. Indiako eta Bangladesheko 25 lagunek Espainiara joan nahi zuten. Lehenengo, Etiopiara joan ziren, eta handik Marokora, Casablancara. Hango trafikante batzuek dokumentazio guztia kendu eta, Espainiara eraman beharrean, lurralde okupatua eta liberatua bereizten dituen harresian utzi zituzten, Saharako desertuan. Ez zuten ezer, ez paperik, ez elikagairik ez edatekorik; ezer ez. Saharar patruila batek aurkitu zituen eta zauriak sendatu eta jatekoa ematen zieten.

Batetik, ez zuten paperik, eta bestetik, nazioarteko arazo batean zeuden. NBEk ez zituen onartzen eta nik ezin nien askorik lagundu. Azkenean, eskutitzak idazteko eta nik bidaliko nituela esan nien. Gasteizera heldu nintzenean, gutunak postontzira bota nituen eta haien egoera zabaltzen hasi nintzen. Maiatz bukaeran gertatu zen hau, eta han daude oraindik.

Zergatik ez zien NBEk lagundu?

Polisariokoek NBEkoengana eraman zituzten, baina euren arazoa ez dela erantzun zieten; eurak Bake Planerako daudela, beste ezertarako ez.

Sarri gertatzen dira horrelakoak?

Tamalez, bai. Asiatik etorri beharrean, bide hau zabaltzen hasi dira trafikanteak.

Saharararrak ere hasi dira ikusten etorkinen artean.

Aaiun hiriburua Kanariar Uharteen pare-parean dago, eta marokoar eta aljeriar etorkinekin batera, etorkin saharararrak ere gero eta gehiago etortzen dira. Etorkin gehienak lan kontuagatik etortzen dira, baina saharararrek ez dute batere askatasunik han, eta arrazoi horrek ere bultzatuko ditu euren lurraldea uztera. Lau ikusi nituen duela gutxi Gasteizen.

Kanpamentuetan bizi diren saharar asko, ordea, Kuba, Errusia eta Libiara joaten dira ikastera. Bekak lortzen dituzte eta erizain izaten edo mediku izaten ikasten dute, adibidez, lurralde haietan. Ikasketak bukatu ostean, kanpamentuetara bueltatzen dira, mediku, maisu edo teknikari lan egiteko.

Euskal Herriak bezala, gainontzeko herriek ezagutzen dute Sahararen egoera?

Gure aitaren garaian, soldadutza egitera joaten ziren Sahara mendebaldera. Saharako toki batzuetan gaztelaniaz egiten dute batzuek eta orain, umeei ere gaztelania erakusten hasi zaie. Espainiako gizon askok ere ezagutzen dute parajea eta badakite zein den hango egoera, baina gero eta gutxiagok.

Ikastetxeetatik kanpo lan egiten duen irakaslea zara Gasteizen.

Bai, autobus gorri batean egiten dut lan. Egunero, ikastetxe aurrera joaten naiz autobus gorriarekin goizeko bederatzietarako. Ikasleak hartu eta bidaia hasten da. Egun batean, adibidez, Biasteriko haurrak hartu eta Trebiñora joaten gara; hurrengoan, Gasteizko ikasleekin Eltziegora; Laudiokoak Gasteizera ekartzen ditugu eta Amurriokoak Laudiora eraman. Trikuharriak, elizak, museoak eta herriak bisitatzen ditugu, besteak beste. Urtean, zazpi hilabetean ibiltzen naiz 12 eta 18 urte bitarteko Arabako ikasleei Araba erakusten.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

“Talde onarekin goaz, baina ni ez nago sasoi betean”

Markel Irizarrek Etorkizunekoen Tourra hasi zuen atzo, Frantzian

XABIER URZELAI

Markel Irizar Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari oñatiarra Etorkizunekoen Tourra korritzen dabil atzo ezkero. Gazteen itzuli horren, Espainiako Itzuliaren eta denboraldiaren gainean berba egiteko izan gara Markelekin.

Atzo arratsaldean hasi zen Frantzian Etorkizunekoen Tourra. Irailaren 2tik 11ra arte, ziklistek 1.500 kilometro pasatxo egin beharko dituzte, hamar etapatan banatuta.

Frantziara abiatu aurretik Markelekin berba egiteko aukera izan dugu, eta datozen egunotan korrituko duen probaren gainean egin digu berba: “Taldea nahiko ondo ikusten dut. Gure artean indarrak nahiko parekatuta daude, eta talde ona osatzen dugula esango nuke. Sailkapenari dagokionez, berez, daukan esperientziagatik Joseba Zubeldiak aurrealdean egon beharko luke, eta Koldo Fernandez de Larrea ere oso azkar dabil. Akaso, aurten gutako inor ez dago joan den urtean Egoi Martinez egon zen bezain indartsu, baina talde orekatua daukagu”.

Markelek egin dezakeen Tourraren gainean ez dago oso baikor: “Limousineko Tourrean lurrera erori nintzen bigarren etapan, eta oraindik ere gorputza minduta daukat. Eta horrez gainera, katarroarekin ere izan naiz; hortaz, ez dakit zer moduz ibiliko naizen. Limousinen sentsazio onak izan nituen, eta hori errepikatzea gurako nuke, baina kontuz ibili beharko dut”. Denboraldiaren gainean galdetu diogu, baina oraindik goiz da baloraziorik egiteko: “Azken baten, denboraldiko azken probetan lortutakoak zapore gazia edo gozoa utz dezake. Denboraldiko lehenengo zatiarekin pozik nago, baina bigarren zatian gauza batengatik edo bestearengatik ez dut nahiko nukeen maila erakutsi. Bihar hasiko den Espainiako Itzulirako Euskaltel-Euskadi nola ikusten duen ere galdetu diogu: “Tourrekoak kalte egin dio taldeari. Presio txikiagoa izango dute, baina ez naiz oso baikorra”.



GOIENKARIA

Oñatiarrak Etorkizunekoen Tourra izango du denboraldiko azken proba garrantzitsua.

> “Limousinen sentsazio onak izan nituen, eta hori errepikatzea gurako nuke. Izan nuen erorikoagatik, baina, oraindik ez naiz errekuperatu”

Kirolabur

MENDIA/ALBERTO IÑURRATEGI G-3AN

Alberto Iñurrategik Gasherbrum III mendi tontorrera (7.352 metro) igotzea lortu zuen uztailaren 26an. Eguraldi txarra zelaeta, igoera uste baino gehiago atzeratu bazen ere, Jon Belokik eta Alberto Iñurrategik tontorrera iristea lortu zuten. Espedizioko hirugarren lagunak, Jose Carlos Tamayok, ez zuen tontorra egin ahal izan, 300 metrora geratu zen.

MENDIA/BITTOR AMOZARRAIN G-2AN

Uztailaren 26an baita ere, Bittor Amozarrain mondragoetarra Gasherbrum II mendiaren (8.035 metro) gailurrera iritsi zen. Hala, zortzimilako bat egin duen lehen mondragoetarra da Bittor Amozarrain. Arrasatearra, Gasteizko lagun batzuekin batera, ekainaren 12an abiatu zen Pakistan aldera, baina uztailaren 26a arte ezin izan zuten tontorra egin. Gero, bi egun behar izan zituzten lehenengo kanpamentura jaisteko; jaitsieran ez zuten arazo handirik izan.

ZIKLISMOA/JON ODRIOZOLA EZ DA VUELTAN IZANGO

Jon Odriozola txirrindulari oñatiarrak ez du Espainiako Itzulian esku hartuko. Hasiera baten, bihar Leongo irteeran egotekoa zen Kelmeko mutila; hala agindu zioten behintzat aste batzuk lehenago. Azkenean, ordea, taldeko zuzendari Vicente Beldak taldetik kanpo utzi du Jon Odriozola.

TRIATLOIA/BERGARARRAK BIKAIN HOLANDAN

Joan den asteburuan, Aritz Kortabarria eta Joseba Zuzaeta Holandan izan ziren, Almereko Ironman proban esku hartzen. Eta, Bergarako bi atletek ondo baino hobeto egin zuten proba. Aritz Kortabarria 40.a izan zen, 10 ordu eta 3 minutuko denbora egin zuen. Joseba Zuzaeta, berriz, 51.a izan zen, 10 ordu eta 19 minutu behar izan zituen proba egiteko.

ESKUBALOIA/OÑATIKO TALDEA LANEAN

Oñatiko Eskubaloi Taldeak Euskadiko Kopako norgehiagoka jokatuko du oraingo asteburuan. Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak Hondarribiaren kontra neurtuko ditu indarrak bihar, zapatua, 18:00etan. Norgehiagoka Oñatin jokatuko dute.

PLATER TIROKETA/‘MATXAIN’ BOLADA ONEAN

Jesus Arroiabe *Matxain* laugarrena izan berri da Andorran jokatu duten Europako Plater Tiroketa Txapelketan. Egun batzuk lehenago, baina, eskoriatzarra txapeldunorde izan zen Leioan jokatu zuten Espainiako Txapelketan. Oraingo asteburuan, berriz, Eskoriatzako tiratzailea Valladoliden izango da kategoria mailako Espainiako Txapelketan parte hartzen.

MENDI LASTERKETAK/ASIER URDANPILLETA

Asier Urdanpilleta Coloradon izan zen, abuztuaren 21eko eta 22ko asteburuan, Munduko Kopako Mendi Lasterketako seigarren proban korritzen. Eta, jaitsieran azkarrena zela erakutsita, korrikalari oñatiarra seigarren helmugaratu zen. Bere aurretik beste euskaldun bat, Gaizka Iza gernikarra, sailkatu zen.

Ibarreko taldeek bihar hasiko dute preferente mailako Liga Txapelketa

X.U.

Oraingo asteburuan hasiko dute preferente mailako 2004/05 denboraldia, eta ibarreko lau ordezkariek bihar jokatuko dute lehenengo norgehiagoka. Bergarak etxean jokatuko du, baina gainerako taldeetako jarraitzaileek kanpora joan beharko dute.

Aloña Mendik Tolosaren etxean hasiko du Liga (zapatua, 18:30). Oñatiarrek ez dute kontrario makala izango, joan den urtean bosgarren postuan amaitu zuen-eta Tolosak. Mondra, berriz, Oiartzunen zelaian estreinatuko da (zapatua, 17:00). Oiartzun erregional mailatik igo berri da, baina ez da komeni lasai joatea, joan den urtean, mailaz igo berri zen Mondrak ezusteko galantak eman zituen-eta. Aurreko denboraldiko ibarreko talde onenak, Aretxabaletak, Hondarribian jokatuko du (zapatua, 16:30). Joan den denboraldian, Hondarribia sailkapen taularen erdi-erdian geratu zen. Aretxabaletarrek, berriz, Liga ederki amaitu bazuten ere, txapelketa gaizki hasi zuten; eta, hain zuzen ere, hori ez errepikatzeko egingo dute lan.

Bestalde, ibarreko taldeen artean etxean jokatuko dutenak Bergarako mutilak dira. Bergarak ez du nolanahiko kontrarioa izango, hirugarren mailatik jaitsi berri den Pasajes taldearen bisita izango dute-eta Agorrosinen. Ikusi egin behar maila galdu eta gero pasaitarren taldea nola geratu den, baina hirugarren mailara ahalik eta azkarren igotzea izango dute helburu, eta lehenengo norgehiagokatik gogor egingo dute.

GOIENKARIA

Bergarako jarraitzaileek etxean ikusi ahal izango dute denboraldiko lehen partidua.

ETA, IBARREKOEN HELBURUA?

Ibarreko ordezkariei aurtengo helburuaren gainean galdetuta, inor ez da ausartuko hirugarren mailara igo behar duela esatera. Mailaz ez jaistea daukate guztiek buruan, eta, ahal dela, joan den urtekoa hobetzea. Baliteke, baina, Gabonetan galdera bera eginez gero erantzuna beste bat izatea.

kalitateko haragia eska ezazu bere izenez

EUSKAL OKELA

Eusko Labela duen bakarra

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
EUSKO LABEL
KALITATEA

EUSKAL OKELA
CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO
BAIMENDUTAKO HARATEGIA
EUSKO LABEL
KALITATEA

Soilik Harategi hauetan

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

Artisauak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.

ANTZUOLA
GABILONDO ARREGI HARATEGIA
KALEBARREN, 14

ARAMAIO
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

ARRASATE-MONDRAGON
LANDALUZE HARATEGIA
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA
ANTXO ABARKA, 1

BERGARA
ANDRES MUJIKA HARATEGIA
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA
ESPOLON, 12

ESKORIATZA
ZUBIA HARATEGIA
SANTA ANA, 11

OÑATI
ANTXON HARATEGIA
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA
OLAKUA AUZOA, 8

Berriro zuekin irailaren 6an

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 21:00etara.
Urte amaierara arteko harpidetza: 10 €

GRUPO ARKAUZ

1950 Zure etxea da 2004

ARKAUZ
ALTZARIAK
Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA

ETXEMOBEL
MUEBLES ALTZARIAK
Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

ARKAUZ
SUKALDE INTEGRALA
Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

ARKAUZ
ELEKTRAGAILUAK
Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert FAGOR

Goienka 2a

Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

Kultura eta aisialdia

Irailaren 3tik 10era

AUPA, ETXEBESTE ETA AUPA, BERGARA!

Zinemaren xarmak hartu du Bergara abuztuan. Herria plato handi bilakatu da *Aupa, Etxebeste!* luzearen kanpoko eszenak filmatzeko, Asier Altuna zuzendari bergararraren eskutik. Datorren aste arte egongo dira hemen. Orain arte, aktore eta zuzendariak, oso gustura… eta bergararrak, gusturago. /15

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / ARGAZKIAK: AITOR LIZARRALDE, JOXEAN ARTEAGA, IBAN GARATE, LEIRE KORTABARRIA, SORT EKOIZPENAK

Inoiz ez da berandu
ESKAINTZA ONA BADA
Irailean oporrak

Irteerak **Bilbotik**

MALLORCA
8 egun / 7 gau — IRAILAK 1 - 30
APTOS. DEYA 2LL — OCC. 4 PERTS.
OSTATUA BAKARRIK **186**

TENERIFE
8 egun / 7 gau — IRAILAK 13 - 30
H. CHIMISAY ***
OSTATUA ETA GOSARIA **306**

PUNTA CANA
9 egun / 7 gau — IRAILA
H. BARCELÓ BÁVARO VILLAGE ****
GUZTIA BARNE **650**

BALEARRAK ETA KANARIAK 8 egun / 7 gau

		Irailak 1-12	Irailak 13-30
MALLORCA •			
DEYA APTU. 2LL occ 4 pers	OB	186	186
TORRE AZUL H. ***	GB	418	394
OFERTA RIU ***	ME	394	329
DELTA H. ****	ME	417	361
OFERTA HIPOTELS ****	ME	557	485
• MENORCA •			
CLUB ANDRIA APTU. 1LL occ 3pers	OB	295	240
SOL Y MAR APTU. 2LL occ 3pers	OB	338	419
BARCELO PUEBLO MENORCA H. ***	ME	440	440
ALMIRANTE FARRAGUT H. ***	HG	566	392
• IBIZA •			
CENTRAL PARK APTU. 2LL occ 3pers	OB	302	302
BARCELO PUEBLO IBIZA H. ***	ME	389	386
FIESTA SAN DIEGO H. ***	ME	451	356
SOL IBIZA H. ****	ME	613	597
• TENERIFE (Pto. de la Cruz)			
CHIMISAY H. ***	HG	306	291
BONANZA PALACE H. ****	ME	405	372
H10 SAN FELIPE H. ****	ME	490	490
SEMIRAMIS H. *****	ME	494	478
• TENERIFE - HEGOALDEA •			
FIESTA OASIS PARAISO H. ***	ME	335	324
FIESTA PARAISO FLORAL H. ***	GB	439	439
IBEROSTAR LAS DALIAS H. ****	ME	472	470
• LANZAROTE •			
LAS GAVIOTAS APTU. 2LL occ 3 pers	OB	297	332
SIROCCO APTU. 2LL occ 4 pers	OB	302	302
BARCELO LA GALEA APTU. ***	ME	444	444
BEATRIZ PLAYA H. ****	HG	470	456
BEATRIZ COSTA TEGUISE H. ****	HG	519	519
• FUERTEVENTURA •			
PUERTA DEL SOL APTU. 2LL	ME	312	-
TOFIO H. ***	ME	393	-
SOL GORRIONES H. ****	ME	465	-

EUROPA ETA AFRIKA IPARRALDEA

• DUBROVNIK • 8 egun / 7 gau		Irailak 3
CAVTAT H. ***	HG	524
CROATIA H. ****	HG	672
• AZOREAK • 8 egun / 7 gau		Irailak 6
COMFORT INN PONTA DELGADA H. ***	HG	549
DO MIRANTE APTU. ****	HG	499
• ESTAMBUL • 8 egun / 7 gau		Irailak 6, 13, 20 eta 27
BIRBEY H. ***	HG	354
ROYAL APTU. ****	HG	413
• TUNEZ • 8 egun / 7 gau		Irailak 1-30
NESRINE H. ****	ME	347
TUNEZ HARRIGARRIA		
HOTEL ***	MO/ME	426

IKUSTEKOAK: Dougga, Cartago, Sidi Bou Said, Túnez, Kairouan, Nefta, Tozeur, Chott el Jerid, Douz, Matmata, Gabes, Djerba, El Djem, Sousse y Skanes.

• EGIPTO •		Irailak 13, 20 eta 27
EGIPTO - HARMAKIS 8 egun / 7 gau		
LUXUZKO HOTELA STD	MO/HG	555

4 GAU ITSAS BIDAIAN NILOAN ETA 3 GAU KAIRON

EGIPTO - AMON RA 12 egun / 11 gau		
LUXUZKO HOTELA STD	MO/HG	688

7 GAU ITSAS BIDAIAN NILOAN ETA 4 GAU KAIRON

ZANZIBAR
9 egun / 7 gau — IRAILAK 14 eta 21
SEA CLUB KIWENGWA H. — 1ª SUP
GUZTIA BARNE **1.130**

KARIBEA 9 egun / 7 gau

		Iraila
DOMINIKAR ERREPUBLIKA		
• PUNTA CANA •		
BARCELO BÁVARO VILLAGE H. ****	GB	650
FIESTA BEACH H. LUJO	GB	799
NATURA PARK H. *****	GB	715
IBEROSTAR DOMINICANA H. LUJO	GB	899
CATALONIA BÁVARO BEACH H. *****	GB	850
• BAYAHÍBE •		
IBEROSTAR HACIENDA DOMINICUS H. LUJO	GB	950
MEXIKO		
• CANCUN •		
IMPERIAL LAGUNA H. ***	OB	650
MELIA TURQUESA H. *****	GB	1.000
• RIVIERA MAYA •		
CLUB CARACOL VILLAGE H. ****	GB	799
CATALONIA RIVIERA MAYA H. ****	GB	815
IBEROSTAR PARAISO BEACH H. LUJO	GB	1.058
IBEROSTAR PARAÍSO DEL MAR H. LUJO	GB	1.058
KUBA		
• LA HABANA •		
GRAN CARIBE NEPTUNO H. ***	HG	555
GRAN CARIBE PLAZA H. ****	HG	644
MELIA HABANA H. *****	HG	750
• VARADERO •		
GRAN CARIBE CLUB KAWAMA H. ****	GB	745
RIU LAS MORLAS H. ****	GB	753
MELIA VARADERO H. *****	GB	908
• LA HABANA / VARADERO •		
GC NEPTUNO H. ***/ RIU LAS MORLAS H. ****	HG/GB	678
MELIA HABANA H. *****/ SOL PALMERAS H. ****	HG/GB	823

Kostara IHESI

%20 rainoko **DESKONTUA**

IRAILA ETA URRIA

GALIZIAKO KOSTA
BRAVA KOSTA
MARESME KOSTA
DORADA KOSTA
DEL AZAHAR KOSTA
VALENTZIAKO KOSTA
BLANCA KOSTA
CÁLIDA KOSTA
ALMERIAKO KOSTA
TROPICAL KOSTA
DEL SOL KOSTA
DE LA LUZ KOSTA
VERDE KOSTA
SANTANDER
ASTURIAS

Irteerak Bilbotik, Kroaziakoak, Azoreetakoak, Egiptokoak, Karibekoak eta Zanzibarkoak izan ezik (horiek Madrildik). Prezioak pertsonako logela bikoitzean eta aurretik aipatutako erregimenean bestelakorik aipatzen ez bada, aurrez esandako irteera konkretuentzat bakarrik, informazio gehiago gure bulegoetan. Karburantearen igoera, tasak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Janarierregimena: OB: Ostatua Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta Gosaria; GB: Guztia Barne; MO: Mantenu Osoa. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. **ESERLEKU MUGATUAK.**

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

PR€ZIOA BAINO ASKOZ ERE GEIHAGO...

902 108 108
viajesiberia.com

BAL-001-MM

ZINEMA/ 'AUPA, ETXEBESTE!' FILM LUZEA EGITEN ARI DIRA BERGARAN

"Herriak dena eman du filmaketan"

FILMEKO ZUZENDARIAK ETA PROTAGONISTAK OSO GUSTURA DAUDE BERGARARREK FILMAKETAN ERAKUTSI DUTEN JARRERAREKIN

LEIRE KORTABARRIA

Bergaran filmatzen ari diren *Aupa, Etxebeste!* filmak bihar, zapatua, izango du egun garrantzitsuenetako bat. Egileek esan bezala, herriak orain arte "dena eman" badu, bihar beste ahalegintxo bat egin beharko du eta Herriko Plazara joan. Ezohiko giroa aurkituko dute han.

"Gidoian dauden elementu pila bat elkarrekin zituelako aukeratu genuen Bergara *Aupa, Etxebeste!* filmatzeko", dio Asier Altuna zuzendari bergararrak. Eta elementu garrantzitsu bat herritarrak dira; hala erakutsi dute orain arteko filmaketa lanetan. Bergarar guztion laguntza eskatu dute biharko, zapatua: Herriko Plazan jai hasiera egun bat filmatuko dute, eta plaza jendez bete nahi dute.

Horren ondoren, irailaren 9 arte egongo da taldea Bergaran.

JOXEAN ARTEAGA

Ikusmin handia sortu du filmaketak; izan ere, eszena guztiak kalean filmatzen dituzte.

DRAMA, KOMEDIA BIHURTUTA

Bergaran bi aste eman dituzte filmatzen, eta hantxe dabiltza oraindik Pako Sagarzazu, Elena Irureta, Ramon Agirre eta Iban Garate aktoreak. Izan ere, eurak dira filmeko protagonistak; beste sei bat aktore ere badabiltza. Lau aktoreok dira, filmean, Etxebestetarrak: oparotasunetik estutasunak pasatzera joaten den familia. Baina, itxurei eusteko, etxean giltzapetuta ematen dute hilabetea, herritarrei oporretan Marbellara joan direla sinetsarazita. Zuzendariek diote: "Egoera dramatikoa da, baina hortik irteteko moduak egoera barregarriak sortzen ditu, eta filma komedia da". Aspaldian euskaraz egiten den lehenengo film luzea da, gainera.

Zortedunek lortu dute aktoreren batekin argazkia eta guzti ateratzea. Jendea pozik ibili da zinegile eta aktore artean: "Abuztua ohi baino animatuagoa izan da, behintzat", dio estra moduan ibili den batek. Bergararren laguntza eta umore on hori bakarrik ez, Udalarena ere eskertu egin dute Altunak eta Esnalek.

"NAHIKO BARRE EGITEN DUGU"

Aktoreak oso pozik daude egiten ari diren lanarekin eta euren rolarekin. Guztiok bat datoz esaten "oso ondo" pasatzen ari direla, eta "nahikoa barre" egiten. Elena Iruretak diosku: "Filmaketa ezin hobeto doa. Nire pertsonaia oso gustuko dut, eta Ramon, Pako edo Ibanekin edo zuzendari hauekin lan egitea luxua da. Guztiok lagunak ditut eta oso giro jatorra sortu da".

Iban Garateri egokitu zaio hainbat trebezia ikastea: besteak beste, bonbardinoa jotzen edo porroak egiten, pertsonaia sinesgarri egiteko. Ibanek ere hitz onak ditu bergararrendako: "Jendea oso lasai ibili da; filmaketarena normaltasunez hartu dute, zalapartarik gabe".

Aurreikusi bezala

Oso lanpetuta, baina pozik dago Asier Altuna Bergarako zuzendaria, guztia "aurreikusi bezala" doalako. Halaxe esan zuen komunikabideei eskainitako tarte laburrean. Epeak betetzen ari dira, eta ez hori bakarrik: "Orain arteko materiala ikusi dugu eta oso gustura gaude", esan zuten Altunak eta beste zuzendariak, Telmo Esnalek. Biondako, lehen film luzea da, eta Altunak esan zuenez, "laburrak egitea 100 metro korritzea baldin bada, honakoa maratoitxo antzekoa da".

Bada, maratoi horren helmuga urtarrilean ikusiko dute, ordurako, filma gertu izatea espero dute-eta bi zuzendariok.



Asier Altuna zuzendari bergararra.

Hainbat bergararrek estra moduan zelan ibili diren kontatu digute

BLANCA NARBAIZA

Kalean gora eta behera ibiltzea tokatu zitzaidan. Egun bakarrean ibili nintzen, eta pena hartu nuen kanpora joan eta ezin izan nuelako egun gehiagotan parte hartu. Aurkeztea erabaki nuen giroaz eta *saltsaz* gozatzeko. Gustura ibili ginen lagunak eta neu.

REGINO VALLE

Beste batzuen aldean, denbora laburra eman nuen: ordu eta erdi inguru. Gainera, tabernan eserita eta egunkaria irakurtzen agertu nintzen. Hasieran, ez zidaten uzten egunkariaren orria pasatzen, baina azkenean konbentzitu egin nituen.

INES BEITIALARRANGOITIA

Kalean, lagunekin hizketan... Horrela ibili nintzen. Goiz eta arratsalde ibili ginen, bazkaltzeko etenaldi batekin bakarrik, baina ez zitzaidan luze egin. Ni neu *casting*-era aurkeztu nintzen, eta eman zidaten ohar bakarra izan zen arropa deigarriegirik ez eramatea.

MARITXU ARREGI

Lagun Nieves eta biok joan ginen. Oso-oso gustura ibili ginen. Guztia ondo antolatuta zegoela iruditu zitzaigun. Hori bai, ni azkenean kexatu egin nintzen pixka bat, eszena bera larregi errepikatzen zutela iruditu zitzaidan-eta, entsegu eta guzti.



ROBERTO ARANTZABAL

Neuk hiru egunean jardun nuen estra lanetan. Azkenean, esan zidaten bizkarrez agertzeko, sarriegi agertu nintzela-eta dagoeneko! Lehenengo aldia izan dut estra moduan, baina pozik ibili naiz, eta gustura errepikatuko nuke. Giro polita sortu zen.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

Irailak 3-10

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► **Finalista Eguna** izango du Arrola mendi taldeak etzi, domeka. 09:00etan irtengo dira Herriko Plazatik, eta Irimo aldetik ibilaldia egin eta gero, Trekutzera joango dira. Han, salda eta txistorra jana izango dute parte-hartzaileek.

ARETXABALETA

► **Arantzazura erromesaldia** egingo du herritar talde batek hilaren 6an, iraileko lehen astelehenero egiten duten moduan. Udalbatzak ere parte hartuko du. Batzuk oinez joango dira, baina autobusak antolatu dituzte Basotxo elkartekoek, 09:30ean, Zubiatik. Hospederian bazkalduko dute. Izena emateko, deitu lehenbailehen 943 77 09 81 telefono zenbakira.

ARRASATE

► **Goikobalu abesbatzaren entseguak** hasiko dira datozen egunotan: helduen taldea hilaren 7an hasiko da, martitzena, Arrasate Musikalen, 21:00etan. Kide berriak 20:30ean hasiko dira. Hortik aurrera, entseguak martitzenetan (Arrasate Musikal, 21:00-22:00) eta eguenetan (San Frantzisko Xabier gunea, 20:00-22:00) izango dira. Urteko 30 euro da kuota. Goikobalu Gazte (12-16 urte) eguaztenean hasiko da, 19:30ean; Goikobalu Txiki (9-12 urte) eguenean, 18:45ean; eta Goikobaluko Izartxoak taldea (5-9 urte) eguenean hasiko da, 18:00etan. Hiru talde horiek San Frantzisko Xabier gunean izango dituzte entseguak.

► **Donostiara irteera** antolatu du Abaroa erretiratuen elkarteak hilaren 23rako. Izenemate epea zabalik dago hilaren 7 arte, martitzena. 15 euro da. Txartelak jasotzeko eguna 21a da.

BERGARA

► **San Martin jaietako danborradako** parte-hartzaile guztiek honako egun eta orduetan izango dituzte entseguak: irailaren 6an, 7an, 8an, 9an, 13an eta 14an, Seminarioko patioan. Umeek 19:00etatik 20:00etara eta helduek, 20:00etatik 21:00etara.

► **Begirale lan poltsa** osatzen ari da Jardun elkartea. Bidali curriculumak, irailaren 10a baino lehen, euren egoitzara, Errotalde jauregira. Argibideetarako, deitu 943 76 36 61 telefonora.

► **Accus-Gabasera mendi irteera** antolatu dute Gorla Alpino eta Pol-Pol mendizale taldeek hilaren 11rako eta 12rako, asteburua. Izena emateko, jo Pol-Pol Mendizale Taldearen bulegora. 80 euro da.

► **KZGunea zabalik dago** oporrak bukatu eta gero. Ordutegia: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00. Bi ordenagailu dituzte Linux sistemarekin, nabigatzeko; bestalde, bi erabiltzaile berri daramatzanari zira bat opari emango diote. Horrez gain, ohi bezala, 20 orduko Internet ikastaroa dago aukeran, doan.

ELGETA

► **Kirol instalazioak zabalik daude** hil hasiera ezkero. Honako ordutegia dute: pilotalekua, egunero, 09:00-21:00; gainerako instalazioak, astelehen, eguazten eta barikuetan, 18:00-22:00; martitzen eta eguenetan, 17:45-22:00; zapatuetan, 10:00-14:00; eta domeketan itxita egongo dira.

ESKORIATZA

► **Aldaipe Ehiza eta Arrantza Elkarteak** ezohiko batzar orokorra egingo du eguenean, hilak 9, kultura etxean. Lehenengo deialdia da 19:00etan, eta bigarrena, 19:30ean.

OÑATI

► **Lodosa, Azagra eta Autolera irteera** antolatu du Pake-Leku erretiratuen elkarteak hilaren 22rako. Izena emateko, jo euren egoitzara astelehen edo eguaztenean, 18:30etik 20:00etara bitarteko ordutegian.

► **1978an jaiotakoek** kinto ospakizuna izango dute irailaren 18an, zapatua. Parte hartzeko, 35 euro sartu behar dituzue Kutxako honako kontuan: 2101 0111 24 0124591132. Egubakoitza duzue mugaeguna.

LEHIAKETAK

BERGARA

► **Argazki lehiaketa** deitu du Lasai-Toki elkarteak, Bergaran jaio edo bizi direnendako. *2004ko uda* da gaia. Teknika librea da, eta argazkion gehieneko tamainak 30 x 40 zentimetro izan beharko du. Argazkion atzeko aldean, izen-abizenak, helbidea eta telefonoa ipini beharko dira, eta bakoitzak lau lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez. Mugaeguna da irailaren 13a. Lehenengo saria da herriko argazki denda baten gastatzeko 250 euro.

DEBAGOIENA

► **Nekazari eta landa arloetarako ideia eta proiektu berritzaileen sariketa** deitu du Debagoieneko landa garapenerako Deba Garaia elkarteak. 1.000 euroko lehen saria, 500eko bigarrena eta proiektua lantzeko 3.000 euroko beka emango dituzte. Proiektuak ibarrean egiteko modukoa izan beharko du, eta guztiz berria. Mugaeguna da irailaren 20a. Argibideetarako, deitu 943 76 25 47 telefono zenbakira.

MATRIKULAK

BERGARA

► **Musika Eskolako ikasleek** hitzorduak izango dituzte egunotan ordutegia adosteko: irailaren 6an, astelehena, 17:00etan, akordeoi, gitarra, biolin, fagot, piano, tronboi, bonbardino, tuba, klarinete eta trikiti ikasleek joan beharko dute; 17:30ean, perkusio, oboe eta tronpetakoak; eta 18:00etan, tronpa, biolontxelo eta biolakoak. Eta irailaren 7an, martitzena, 17:00etan, txistu, pandero eta txirula ikasleen txanda izango da, eta 18:00etan, saxo ikasleena. Ikasturtea eguaztenean, hilak 8, hasiko da.

DEBAGOIENA

► **Aisialdiko begirale ikastaroa** deitu dute Debagoieneko euskara elkarteek. Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulua emango dute. Urritik maiatzera bitartean izango da, 18 urtetik gorakoendako. Prezioa da 250 euro. Argibide gehiagorako, jo AED, Txatxilipurdi, Axtroki, Loramendi, Jardun edo Laixan euskara elkartetara.

OÑATI

► **Musika Eskolan matrikula egiteko epea** zabalik dago astelehenera bitartean, irailak 6. Jo euren bulegoetara, 18:00-20:00 ordutegian.

► **Udal Euskaltegiak** zabalik du matrikulazio epea hilaren 21 arte. Horretarako, jo euren egoitzara, Errekalde auzoan, edo deitu 943 78 24 96 telefono zenbakira.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Marixeka eguna** ospatuko dute etzi, domeka. Eguerdian, meza izango da; gero, salda eta txorizo jana, Vermouth dantza, elkarteko bazkideen bazkaria… eta arratsaldean, dantzaldia eta umeendako ekintzak.

ARETXABALETA

► **Andra Mari jaiak** ospatuko dituzte Areantza elizatean hilaren 10etik 12ra bitartean.

BERGARA

► **San Martin Agirre jaiak** hasiko dira datorren egubakoitzean, irailak 10. Egun horretan, Moises Azpiazuren omenezko XX. Bikoteen Dantza Solte Txapelketa jokatuko da, frontoian, 19:30ean. Moises Azpiazu eta Abarka dantza taldeek antolatu dute. Horrez gain, egun horretan bertan Xake Astea hasiko da, eta Bergarako eskola arteko xake txapelketa jokatuko dute Zabalotegi dorrean, 18:00etan.

LEINTZ GATZAGA

► **Dorletako Amaren omenezko jaiak** ospatuko dituzte datozen egunotan. Gaur, egubakoitza, jai hasiera ekitaldia izango da, 18:00etan; gero, bederatziurrena eta triki-poteoa. Bihar, zapatua, umeendako jolasak izango dira; baita triki-poteoa, herri bazkaria, mus txapelketa eta abar ere. Etzi, domeka, txirrindulari lasterketa hasiko da 09:30ean. Eguaztenean, hilak 8, ospatuko dute Dorletako Amaren eguna. Hori dela-eta, meza izango da Dorletako santutegian, 12:30ean. Gero, bertso saioa eta otxandiarren eta gatzagarren arteko lehia izango dira.

OÑATI

► **Arantzazuko Amaren, Gipuzkoako zaindariaren eguna** ospatuko dute hilaren 9an, eguena. Oñatiko erromesak Urtiagain jatetxe inguruan elkartuko dira 07:30ean. Meza nagusia 12:00etan izango da.

► **Atzeko Kaleko jaiak** izango dira hilaren 9tik 12ra bitartean. Eguenean, besteak beste, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia, txokolate jana eta txorimalo eta erraldoien kalejira izango dira. Egubakoitzean, umeendako jolasak, VI. Irristagailu Lasterketa, poteoa, kalejira… izango dira. Rock kontzertua eta punk kalejirarekin bukatuko dute eguna.

► MUSIKA

AFRIKA BIBANGEK EUSKAL SOUL DOINUAK EKARRIKO DIZKIGU

Afrika Bibang musikari bilbotarrak *Entzun* lehen diskoko rhythm-and-blues, soul eta hip-hop doinuak gerturatuko dizkigu bihar, zapatua, eskainiko duen kontzertuan, Oñatin. Musika beltzaren tradizioari heltzen dio Afrikak lan horretan; hori bai, euskaraz abestuta. Bakarlari moduan *Entzun* lanarekin estreinatzen bada ere, 28 urteko ginear sustraidun euskaldun honek eskarmentu handia du musikan: punk estiloa landu du Etsaiak taldearekin, reggaea Ke Rule eta Ke No Falte taldeekin, eta house estiloa Roudo & Friends Sound System-ekin. Fermin Muguruzarekin lan egin du hainbat alditan, eta Muguruzak animatuta grabatu du Afrikak diskoa. Oñatin izango dugu doinu horiek zuzenean entzuteko aukera.

Non: Oñatin, Atzeko kalean. **Noiz:** bihar, irailak 4, zapatua. **Ordua:** 23:30. **Antolatzailea:** Udal Gaztedia Saila.

MUSIKA

BERGARA

► **Ostiada Oi, Hell Beer Boys eta Corrosion Cerebral** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

LEINTZ GATZAGA

► **Kontamina ke Algo Keda, Enboskada, Golpe de Estado eta Never Surrender** taldeen rock emanaldia izango da gaur, egubakoitza, 23:00etan.

OÑATI

► **Stupenda Jones, Lor eta Middle Finger** taldeen rock kontzertua izango da egubakoitzean, hilak 10, Atzeko kalean, 22:15ean.

ERAKUSKETAK

GASTEIZ

► **Aitor Lajarin eskoriatzarrak** erakusketa du Artium museoan, beste sei euskal artistarekin batera. Lajarinen lana publizitatean inspiratutakoa da. Irailaren 12ra bitartean duzue bisitatzeko aukera: martitzenetik egubakoitzera: 11:00-20:00; eta zapatu, domeka eta jaiegunetan, 10:30-20:00.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Munduko dantza ikastaroa** antolatu dute. Capoeira, cumbia, salsa, merengea, Karibeko dantzak… irakatsiko ditu Magdalena Milano irakasleak. Martitzenero, 20:00-21:30, izango dira eskolak, Kurtzebarri ikastetxearen egoitzan, irailaren 21etik Gabonak arte. Matrikula da 35 euro, 25 ikasle eta langabeendako. Izena emateko, jo Aretxabaletako Azkena tabernara edo kultura etxera, edo Arrasateko Aker tatuaje dendara. Irailaren 17a da mugaeguna.

BERGARA

► **Gazta-dastatze ikastaroa** antolatu du Udal Kultura Sailak irailaren 17rako, baina izenematea hilaren 8a baino lehen egin beharko duzue; izan ere, gehienez 30 lagun hartuko dituzte. Horretarako, deitu kultura etxera, 943 77 91 59 zenbakira, hain zuzen ere.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

Bajo el sol de la Toscana
Egubakoitza, hilak 3: 22:30.

BERGARA

■ **NOVEDADES**

Fahrenheit 9/11
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

Zafarrancho en el rancho
Zapatua eta domeka: 17:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

Kill Bill 2
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

La herencia
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Mar adentro
17:30, 20:00, 22:30.

La sombra de un secuestro
18:00, 20:15, 22:30.

En busca del valle encantado
18:00.

24 horas al límite
20:15, 22:30.

Cámara oscura
18:00, 20:15, 22:30.

Cazadores de mentes
17:30, 20:00, 22:30.

Spy kids 3D
17:30, 20:00.

Las mujeres perfectas
22:30.

El rey Arturo
17:30, 20:00, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

Mar adentro
17:30, 20:15, 22:45.

Shrek 2
17:30, 20:15, 22:45.

Kill Bill 2
17:30, 20:15, 22:45.

El rey Arturo
17:30, 20:15, 22:45.

Yo, robot
17:20, 19:50, 22:35.

Zafarrancho en el rancho
17:15.

Isi / Disi
20:00, 22:30.

Spider-man 2
17:15, 20:00, 22:30.

El código
17:15, 20:00, 22:30.

El sueño de mi vida
17:15.

The one and only
20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Negocios ocultos
17:30, 20:00, 22:30.

Zafarrancho en el rancho
17:30.

Quiéreme si te atreves
20:00, 22:30.

Fuera del cuerpo
17:30, 22:30.

La promesa
20:00.

Inconscientes
17:30, 20:00, 22:30.

La gran seducción
18:00, 20:15, 22:30.

El señor Ibrahim y las flores del Corán
18:00, 20:15, 22:30.

Baran (Lluvia)
18:00, 20:15, 22:30.

■ **ABACO-LAKUA ZINEMAK**

Garfield
16:00, 18:00, 20:00, 22:30, 00:45.

Spider-man 2
16:10, 19:00.

Shrek 2
16:00, 19:00, 22:15, 00:45.

Isi / Disi
22:30, 00:45.

Kill Bill 2
00:30.

Yo, robot
16:15, 19:00, 22:15, 00:45.

Catwoman
16:00, 18:15, 20:30.

El rey Arturo
16:00, 19:10, 22:00, 00:30.

La vecina de al lado
22:00, 00:45.

Las mujeres perfectas
22:00, 00:30.

Zafarrancho en el rancho
16:20, 18:00, 19:45.

Spy kids 3D
16:00, 18:00, 20:00, 22:15.

El sueño de mi vida
22:45, 01:00.

El año de la garrapata
16:00, 18:00, 20:00, 22:10, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Mar adentro
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Chicas malas
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Garfield
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Isi / Disi
20:35, 22:35, 00:35.

Crónicas de Riddick
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Cazadores de mentes
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

El rey Arturo
12:15, 17:05, 19:35, 22:05, 00:35.

24 horas límite
12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Spy kids 3D
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Cámara oscura
12:15, 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

La sombra de un secuestro
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Yo, robot
12:15, 17:10, 19:40, 22:10, 00:40.

Zafarrancho en el rancho
12:15, 16:25, 18:25.

Mujeres perfectas
20:25, 22:25, 00:25.

Doraemon
12:15, 16:20, 18:20.

El año de la garrapata
20:20, 22:20, 00:20.

Shrek 2
12:15, 16:35, 18:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelehena, ikuslearen eguna.

■ **ÁBACO BOULEVARD**

Garfield
12:20, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:45.

Mar adentro
12:10, 17:00, 19:40, 22:10, 01:05.

La maldición 2
12:00, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Chicas malas
12:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

Kill Bill 2
00:30.

Las crónicas de Riddick
12:25, 17:15, 20:00, 22:30, 01:05.

Yu-gi-oh
12:10, 16:30, 18:30.

Doraemon, el gladiador
12:15, 16:15, 18:15.

Spy kids 3D
12:10, 16:20, 18:20, 20:20, 22:30.

La sombra de un secuestro
20:30, 22:40, 01:00.

Shrek 2
12:20, 16:00, 18:10.

Isi / Disi
20:25, 22:35, 00:30.

Cazadores de mentes
12:15, 17:20, 20:10, 22:20, 00:45.

El rey Arturo
12:10, 17:00, 19:45, 22:25, 01:05.

La vecina de al lado
20:20, 22:40, 01:00.

Zafarrancho en el rancho
12:00, 16:10, 18:00.

Yo, robot
20:10, 22:30, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan. Eguerdiko saioak, bakarrik domekan. Eguaztena, ikuslearen eguna.

Shrek 2: ●●● / ***Spider-man 2:*** ●● /

KRITIKA

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KILL BILL VOL. 2

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Quentin Tarantino.
AKTOREAK: Uma Thurman, David Carradine.

Duela aste batzuk estreinatu da *Kill Bill* zikloa bukatzen duen filma, eta bigarren zati honekin Tarantinok, digresiorako duen joera galdu gabe, lehenengoa baino lan borobilagoa, erregularragoa eta neurtuagoa lortzendu. Esate baterako, ekintza eta borroka eszenak ez dira hainbeste luzatzen, eta pertsonaien arteko arazo sentimentalek garrantzi handiagoa dute.

Esan dezakegu, *Kill Bill*bi zatiak ikusi ondoren, Quentin Tarantinoren azkenengo lan osoa ikuskizun nahiko eroa eta estilo hariketa bat dela. Zuzendaria, istorio sendo bat osatzen baino gehiago, multzo edo zati askotan banandutako istorio txikiak edo esketx luzeak sortzen ahalegintzen da. Istorioa kapituluetan zatituta dago eta horiek ia modu soltean funtzionatzen duten lanak dira. Egia da zati bakoitza istorio nagusi baten barnean dagoela -neska gazte bat mendekua lortu nahian bere taldekide ohien bila arituko da, azkenean, Bill famatuarekin topo egin arte-, baina, hala eta guztiz, kapitulu bakoitza neska protagonistarekin zerikusia duen film laburra kontsidera daiteke. Horietan, Tarantinok denborarekin jolasten du, hori bere gustura luzatuz edo laburtuz; *flashback*ak erabiltzen ditu; era desberdinetako musikak nahasten ditu; eta zinemako genero ugari umorez eta grazia berezi batekin omentzen ditu: karateko filmak, espageti-westernak eta batez ere filmaren azkeneko zatian foiletoi eta melodramen ezaugarri nabarmenenekin ere jolasten du. Osagai desberdin horiek maisutasun berezi batekin nahastuaz, oso ikuskizun eroa eta dibertigarria lortzen dute.



Agian *Kill Bill*en akatsa film zerbait hutsa izatea da. Ikuslea ez da istorioan sartzen, urrunetik ikusten ari den istorioa da, ez dugu pantaila zeharkatzen, ez dugu ikusten ari garena gehiegi sinisten. Filmak argi eta garbi erakusten digu Tarantinoren talentua: hain ederki idazten dituen elkarrizketa burugabeek, filmak dituen estilo biraketek, kamera mugitzeko eta irudi ederrak sortzeko ahalmenak… oso ikuskizun koloretsua eta bitxia osatzen dute, baina ez diote ematen, adibidez, *Jackie Brown* lanak zuen kontatzeko eraginkortasuna.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN
Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat
BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU
04/09/10era arte baliagarria
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com ÁBACO BOULEVARD
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 51 44 51 www.cinesabaco.com ÁBACO LAKUA
ÁBACO
ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU !
www.cinesabaco.com

INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Zubiaurre 50 m². Berrituta.
- Masterreka 75 m². Berrizteko.
- Azkarruntz 80m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Ondo kokatuta. Garajea aukeran.

PABILIOIA SALGAI
- Osintxu 660 m²

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Osintxun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI ETA ERRENTAN

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Ozaeta 70 m². Berrituta.
- Martoko 60 m². Berrituta.
- Zubiaurre 51 m². Eguzkitsua. Garajea.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.
- Kalebarren 84 m². Berritzeko.
- Beheko auzoa 60 m². Berrituta.

SORALUZE:
- 80 m².Berritua. Garajea eta txokoa.

BASERRIAK
- Angiozar 600 m² eta lursaila.
- Elosua 405 m² eta lursaila.

Bergaran salgai eta errentan:
Lokalak, pabilioiak eta garajeak

Iragarki sailkatuak

1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 76 92 71
sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 15 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasaten. Makatzenan etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua da. 943 79 42 68.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean ikasleentzat etxebizitza errentan. Oso egoera onean. Merkea. Deitu gauez. 943 03 78 31.

Arrasate. San Andres. Etxebizitza errentan. Ondo dago. 943 70 64 78.

Benidorm. Igerilekua eta aire girotua ditu. 666 18 53 87.

Chiclana (Cadiz). Etxebizitza errentan irailean eta urrian. Leku ezin hobean. Hondartzatik gertu. Deitu gauez. 670 37 71 03 edo 945 06 00 24.

Chiclana (Cadiz). Lau mendiko bungalow errentan ematen ditut, eguneko. Hondartzatik 3 km-ra. Barbakoa, garajea birendako eta bi estrarendako lekua. 52 euro bungalow eta gaueko.Amaia. 620 26 80 24.

Oñati. Etxea jantzia dago. Edurne. 615 78 20 92.

Oñati. Ikasle edo irakasleei errentan emango nieke etxebizitza, Olakua auzoan, unibertsitatetik oso-oso gertu. Bi logela. 943 78 16 33.

San Carles de la Rapita (Tarragona). Etxebizitza errentan irailean. 100 m². Hiru logela. 943 79 29 23 edo 669 92 53 44.

Vera (Almeria). Hondartza naturistan. Apartamentua errentan gune naturistan. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote gazte batek errentan hartuko luke etxebizitza. 639 96 30 98.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona behar da. Eskolatik gertu dago etxea. Eneko. 652 72 97 51.

Bergara. Etxebizitza bat daukat Espoloian, eta pertsona bat behar dut etxebizitza osatzeko. 605 77 51 82.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Uribarri etorbidean garaje itxia salgai, unibertsitate ondoan. 943 79 33 48.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Olarte kalean garaje itxia errentan. Arratsaldeetan deitu. 616 70 78 91.

Oñati. Bidebarrieta. Auto bakarrarendako; garaje itxia. 639 00 21 72.

ELGETA
TABERNARAKO BI ZERBITZARI BEHAR DIRA. BATA ASTE BARRURAKO ETA BESTEA ASTE BURUETARAKO. 636 05 35 36

ESKORIATZA
JATETXERAKO PERTSONA BAT BEHAR DA. 678 62 74 85

BERGARA
NESKA BEHAR DA ZERBITZARI JARDUTEKO. 685 71 62 27 (PATXI)

ARETXABALETA
ZERBITZARIA BEHAR DA ASTE BURUETARAKO. 647 05 42 75

ARAMAIO
ZERBITZARIA BEHAR DA BI ASTE BUKAERETARAKO. 626 75 91 04

BERGARA
SIRIMIRI JATETXEAN GARBITZAILEA BEHAR DA. 943 76 59 19

DEBAGOIENA
MUTIL GAZTEA BEHAR DA ETXE-TRESNAK ETXEETARA ERAMATEKO ETA BILTEGIAN LAN EGITEKO. 943 77 13 13

ARRASATE
GUTXIENEZ HAMAR URTEKO ESPERIENTZIA DUEN ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. OSO ONDO ORDAINDUA. 676 22 33 18

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Uribe auzoan lokala ematen da errentan. 100 m². Obra eginda. Telefonoa: 635 74 70 05.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasaten. Emakume euskalduna behar da zapatu eta domeketan emakume nagusi bat zaintzeko. Zortzietatik aurrera deitu. 943 79 19 64.

Bergara. Emakumea behar da etxeko lanak egiteko. 676 22 33 18.

Bergara. Pertsona bat behar da 4 eta 7 urteko ume bi zaintzeko, astean hiru arratsaldetan. 943 76 71 04 edo 628 48 52 34.

Bergara. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko, 08:00etatik 13:00etara. 943 76 71 04 edo 628 48 52 34.

402. ESKAERAK

Arrasaten. Neska batek bere burua eskaintzen du umeak eta nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. 676 19 87 65.

Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. 639 38 78 85.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Antzuola. Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Azterketak. Etxean bertan. 610 97 49 68.

Bergara. Irakaskuntza ikasketak egiten ari den neskak eskola partikularrak ematen ditu: matematika, ingelesa, eta abar. 943 76 27 81.

Eskoziako gaita jotzen irakasten dut. 645 73 12 16.

Oñati. Kimikan lizentziadunak Matematika, Fisika eta Kimikako eskola partikularrak emango lituzke. Iratxe. 943 78 19 59.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW RT 1.150 R motoa salgai. Bi urte eta erdi. 23.000 km. Igor. 609 37 60 06.

Citroën Visa GTi autoa salgai. 1987koa. 700 euro. 943 78 24 25 edo 665 71 42 69.

Seat Ibiza Stela 1.400 autoa salgai. 4 urte, 33.000 kilometro. 627 21 87 49.

Kawasaki 250 Enduro motoa salgai. 1993koa. 8.000 km. Oso ondo dago. 943 78 24 25 edo 665 71 42 69.

OPARIAK

MARGOLANAK ETA ESKULTURAK SALGAI. ARTISTAREN ESTUDIOAN BERTAN. OPARI EZIN POLITAGOA! 943 76 25 54. BALENTZIAGA15@terra.es

8/ DENETARIK

802. EROSI

Liburuak, bigarren eskukoak. Kurtzebarri Eskolako DBHko lehen mailakoak behar ditut. 649 55 48 10.

Txanponak eta bankuko billeteak erosiko nituzke. Deitu 17:00etan. 945 44 50 44.

806. GALDU

Mendiko makila ahaztuta laga nuen uztailaren 23an Arantzazuko goiko aparkalekuan. Kohla Alpen Pro markakoa. Topatu baduzu, deitu, mesedez. 943 76 16 57.

Bergara. Seiko erlojua galdu nuen abuztuaren 27an Torrekuatik Labegaraietarako tunelaren ondoan. Uhala granate kolorekoa. Zenbaki erromatarrak. 943 03 88 53.

M
MEMESA SL
Industri hornidurak
943 71 24 25

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Maila goreneko diplomatura
GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA
www.debagoiena.net
MATRIKULAZIOA
Irailean
9etatik 12:30etara
Non: Arrasateko Lanbide Hastapeneko egoitzan.
Nafarroa Etorbidea 19 Pk: 237 20500 Arrasate
Tel. 943792890 Fax. 943793212
e-mail: idazkaritza@lanbidehastapena.com

Lanbide profilak
Arrasateko Lanbide Hastapeneko zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1go kurtsoa
- Behe tentsioko instalazio elektrikoko laguntzailea
- Iturgintzako laguntzailea

2. kurtsoa
- Industri mekanikoko laguntzilea
- Modulu-altzarien fabrikazio eta instalazioa

LANBIDE HASTAPENA
2004-2005 IKASTURTEA
Arizmendi ikastola

LANBIDE HASTAPENA Nafarroa etorbidea, 19 20500 ARRASATE-MONDRAGON (GIPUZKOA) Tfnoa. 943792890 - 943793212

AIPAGARRI

Bittor Amozarrain

ARRASATE

Zortzimilako bat egin duen lehen mondragoetarra da Bittor Amazorrain. G-2 mendia igo du Bittorrek. Eguraldi txarragatik, hilabete eta erdi behar izan zuen gora heltzeko. Uztailaren 26an heldu ziren, beste mendizale ezagun batzuek G-3 eta K-2 mendiak igo zituzten egunean.

Asier Urdanpilleta

OÑATI

Abuztuaren 22an, munduko kopako mendi lasterketako seigarren proban hartu zuen parte Asierrek, Coloradon, AEBetan. Emaitza bikaina lortu zuen; seigarren onena izan zen. Berak egin zuen, gainera, jaitsierarik onena. Zegama-Aizkorrin, bosgarren egin zuen.

Jesus Arroiabe

ESKORIATZA

Jesus Arroiabe *Matxain* Europako laugarren onena da plater tiroketan. Andorran egin zuten Europako txapelketan lortu zuen sailkapena. Asteburu honetan Valladolidera joan da *Matxain*, kategoria guztietako Espainiako txapelketan parte hartzera.

HILDAKOAK

Edurne Osinaga Uribe. Arrasaten, uztailaren 23an. 80 urte.
Felipe Azpiazu Alberdi. Bergaran, uztailaren 24an. 73 urte.
Jose Mari Kortabarria Guridi. Oñatin, uztailaren 24an. 74 urte.
Milagros Castelo Hernandez. Bergaran, uztailaren 27an. 46 urte.
Raimundo Azkarate Elexpuru. Bergaran, uztailaren 27an. 84 urte.
Ignacia Lasuen Ortuzar. Arrasaten, uztailaren 27an. 94 urte.
Migel Urzelai Mart. de Albeniz. Oñatin, uztailaren 30an. 77 urte.
Felix Mendez Miño. Arrasaten, abuztuaren 2an. 86 urte.
Quirino Navajo Berzal. Arrasaten, abuztuaren 3an. 81 urte.
Fernanda Lopez Alcega. Arrasaten, abuztuaren 4an. 92 urte.
Carlos Garcia Barberan. Bergaran, abuztuaren 5an. 67 urte.
Karlos Iñurritegi Urzelai. Oñatin, abuztuaren 6an. 88 urte.
M. Karmen Aiastui Arregi. Oñatin, abuztuaren 7an. 90 urte.
Lurdes Lazkano Agirre. Arrasaten, abuztuaren 8an. 69 urte.
Juliana Pagaldai Etxeberria. Arrasaten, abuztuaren 9an. 87 urte.
Maria Mendizabal Eguren. Bergaran, abuztuaren 9an. 93 urte.
Felisa Egiguren Alberdi . Bergaran, abuztuaren 10an. 73 urte.
Mercedes Vitoria Vitoria. Arrasaten, abuztuaren 10an. 81 urte.
Bitor Osoro Olaberria Bergara, abuztuaren 11an. 87 urte.
Josefa Albisua Larrea. Oñatin, abuztuaren 11an. 91 urte.
Mariano Jauregi Mujika. Bergaran, abuztuaren 14an. 74 urte.
Jacinto Cuadrado Lopez. Bergaran, abuztuaren 15an. 71 urte
Juanita Agiriano Argarate. Bergaran, abuztuaren 16an. 85 urte
Apolonia Santamarina Urrutia. Arrasaten, abuztuaren 16an. 97 urte.
Bitor Bikuña Ugarte. Oñatin, abuztuaren 16an. 72 urte.
Klara Maritxalar Iñurritegi. Arrasaten, abuztuaren 17an. 94 urte.
Begoña Gorosabel Aranzabal. Bergaran, abuztuaren 18an. 53 urte.
Guadalupe Garro Abarrategi. Eskoriatzan, abuztuaren 18an. 80 urte
Luis Corral Martinandiarena. Bergaran, abuztuaren 19an. 82 urte.
Gumersindo Perez Boborio. Arrasaten, abuztuaren 21an. 59 urte
M. Luisa Telleria Berasategi. Oñatin, abuztuaren 22an. 74 urte
Lorenzo Altube Anduaga. Oñatin, abuztuaren 23an. 90 urte
Asunción Diz Fernandez. Oñatin, abuztuaren 24an. 55 urte
Manuel Tena Medino. Arrasaten, abuztuaren 25an. 37 urte
Antonia Irala Idigoras. Bergara, abuztuaren 26an. 89 urte
Marta Arizabaleta Kortabarria. Bergara, abuztuaren 29an. 92 urte
Maria Odriozola Elkoro-Berezibar. Bergaran, abuztuaren 29an. 95.
Pedro Antxia Ezpeleta. Arrasaten, abuztuaren 29an. 79 urte
M. Nieves Abarrategi Eraña. Aretxabaletan, abuztuaren 29an. 78 urte
Manuel Quelle Morales. Oñatin, abuztuaren 30an. 73 urte
Miren Ursain Victoria. Bergara, abuztuaren 30an. 89 urte
Tomasa Zabaleta Barrutia. Bergaran, abuztuaren 30an. 91 urte
Anjel Morales Vecino. Arrasaten, abuztuaren 3173an. 72 urte

ESKELA

Maria Luisa
Telleria Berasategi

Marta Leturia Goienako langilearen ama

Gasteizen hil zen 2004ko abuztuaren 22an, 74 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.

Oñatin, 2004ko irailaren 3an.

ESKER ONA

Felisa Juana
Egiguren Alberdi

Gasteizen hil zen 2004ko abuztuaren 9an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 3an.

ESKER ONA

Pedro
Antxia Ezpeleta

Aretxabaletan hil zen 2004ko abuztuaren 29an, 79 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2004ko irailaren 3an.

ESKER ONA

Marta Arizabaleta Kortabarria
"Bolintxo"

Jose Maria Gallastegiren alarguna

Arrasaten hil zen 2004ko abuztuaren 29an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 3an.

ESKER ONA

Maria
Odriozola Elkoro-Berezibar

Pedro Arrondo Urrestiren alarguna

Bergaran hil zen 2004ko abuztuaren 29an, 95 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2004ko irailaren 3an.

ESKER ONA

Angel
Morales Vecino

Arrasaten hil zen 2004ko abuztuaren 31n, 63 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2004ko irailaren 3an.

MEZA

Joakin
Aranguren Zendoia

Arrasaten hil zen 2004ko uztailaren 15ean, 85 urte zituela.

**Haren aldeko meza domekan,
irailaren 5ean, 13:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.**
Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik
eskerrik asko sendikoen izenean.
—
Hileta-elizkizunetara joandakoei eta
samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, mila esker.

Bergaran, 2004ko irailaren 3an.

URTEURRENA

Esperanza
Ribera Etxebarria

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, irailaren 4an,
19:30ean,
Aretxabaletako parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ramon
Zuazubiskar Etxabe

Laugarren urteurreneko meza
domekan, irailaren 5ean,
11:30ean,
Uribarriko parroki elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

HITZGEZIDUNAK

Luma

*Deitura / Murmurikatu — Maiz / Jardun — *Izena
Herri giputz / Herri nafarra
Koipe / Urtegi — Gogo bizi / Ona — Lehen bokala / Nota multzo
Zerez atzizkia / Izerdia bota
Zain egon / Nonbait
Zoologiko / Letra izena
Goizaren erdi — Potasioa / Laiotz, itzaltsu — Bakarrik / Bidexka — Hertsia
Putre / Neptunioa — Dut / Noren atzizkia
Oihu / Dauka — Hamar / Zirkonioaren ikurra
Edalontzi / Ur izoztu
Oinarrizko edaria

BILABILA7





UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

GAUZA SEKRETUA

Bazan Eibar inguruetan autobanatzaille bat, beti zeozer kontatzeko eukitzen zebana. Dana, gaiñera, sekretu moduan kontatzen zeban.

Egun baten, esatetsa lagun bati:

- Ara, egixa dok, baiñan ezeixok iñori esan. Sekretu moduan esaten deuat...

Eta lagunak:

- Zer, euk kontau bietsek daneri ala?

SANTA AGEDATIK IGESKA

Santa Agedako etxe aundixan zeguan plaentxiar batek iges egin dau bertatik. Arrapatu naixan, berriz barruan sartzeko, jarraitzen detsa San Juan de Diosko fraille batek. Diarka esaten detsa:

- Urlixa, gelditu zaitxe, gelditu zaitxe!

Gure Urlixak erantzun:

- Geratzekotan, geratu zaitxe zeu, zuri ez dotsu iñork jarraitzen-eta.

EZETZASMATU!

Estepan Plazaola

Debagoieneko zein herritan daude turismo bulegoak?

Abuztua joan zaigu eta horrenbestez turismo denboraldia zer moduzkoa izan den baloratzeko garaia izango da. Badirudi Debagoienean ere gero eta ahalegin handiagoa egin nahi dela arlo hori jorratzen eta horretarako hainbat udalek zabaldu dituzte Turismo bulegoak. Asmatuko zenuke zein udalek?

- Bergara, Arrasate, Oñati, Leintz Gatzaga
- Bergara, Leintz-Gatzaga eta Oñati.
- Elgeta, Arrasate, Oñati
- Arrasate, Oñati, Aretxabaleta

Erantzun zuzena: Bergara, Leintz-Gatzaga eta Oñati. Horretaz apartе, Debagoieneko Mankomunitateak Arrasateko Turismo Elkintzetarako Zentroa eta Arantzazuko Arantzazuko Informazio Puntu Turistikoa kudeatzen ditu.

SOLUZIOAK





ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

ARIES
martxoak 21-apirilak 21

Oso oldarkorra zara, eta lankideek ez dute konfiantzarik zugan. Aholkutxo bat: ezer egin aurretik, ondo pentsatu, eta gauzak hobeto irtengo zaizkizu.

TAURUS
apirilak 22-maiatzak 21

Zure jarrera praktiko eta metodikoa oso ondo dago kasu batzuetarako, baina berria den edozertatik ihes egiten segitzen baduzu, lanean gora egiteko aukera polita galduko duzu.

GEMINI
maiatzak 22-ekainak 21

Lanik ez badaukazu, hara eta hona ibiliko zara lan bila, baina oraingoz ez duzu ezer topatuko. Bestalde, bikotekidearekin autoritario jokatzen segitzen baduzu, zuenak egingo du.

CANCER
ekainak 22-uztailak 22

Osasun arazoak direla-eta ohean egon beharko duzu hainbat egunez. Bestalde, seme-alabaren batek arazoak ditu, baina errieta egin baino lehenago, ahalegin zaitez harekin berba egiten.

LEO
uztailak 23-abuztuak 22

Hainbat lan bidaia egingo dituzu, eta oso positiboak izango dira. Izan ere, oso une aproposa da kontratu onak sinatzeko eta akordioak egiteko. Baina argi ibili letra txikiarekin!

VIRGO
abuztuak 23-irailak 22

Lanean sekula baino hobeto irtengo zaizu dena; horren ondorioz, diru gehiago irabazteko eta ospe handiagoa lortzeko aukera izango duzu, baina hori guztiori edukitzeko aisialdiko denbora murriztu egin beharko duzu.

LIBRA
irailak 23-urriak 22

Arazoei aurre egin behar diezu. Kontua ez da zure arazoak lau haizeetara zabaldu eta jendearen errukia bilatzea. Ez zaitez tematia izan eta lagunen aholkuei kasu egiezu, hainbat arazo konpontzeko guztiz baliagarri izango dira-eta.

SCORPIUS
urriak 23-azaroak 22

Aisialdia gura duzuna egiteko da, eta ez beste batzuek inposatzen dizutena egiteko. Bestalde, neska bazara, arazoak izango dituzu sexu-organoetan, eta ginekologoarengana joan beharko duzu.

SAGITTARIUS
azaroak 23-abenduak 21

Orain arteko jarrera harro eta despotarekin segitzen baduzu, lagun guztiak galduko dituzu. Hortaz, ahalegin zaitez atseginago izaten, denen beharra izango duzu-eta proiektuak aurrera ateratzeko.

CAPRICORNUS
abenduak 22-urtarrilak 20

Zorte handia izango duzu, batez ere diru kontuetan, baina horrek ondorio kaltegarria izan lezake: diruzalekeria. Argi ibili, lagunak betiko dira, dirua ez.

AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 20

Une txarrak bizi izaten ari zara, eta deprimituta sentituko zara. Agian, zeure buruari galdetu beharko diozu egiten ari zarena ondo dagoen edo beste helburu batzuk markatu behar dituzun.

PISCIS
otsailak 21-martxoak 20

Familiarteko arazoak izango dituzu, eta horren ondorioz denbora luzeagoa eman beharko duzu familiakoekin. Lana alde batera utzi beharko duzu. Hasieran gogorra egingo zaizu, baina epe luzera onuragarria izango da.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA

Irailaren 6a: 011 zozketa

Harpidedunen txokoa

Sariak, astero!

Astelehenean, irailak 6, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Irailaren 6ko sariak

- **PHILIPS DVD** irakurgailua.
- **AQUARIUM**erako lau sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- **YELMO CINEPLEX**-erako lau sarrera (saridun bakoitzarendako bi).
- **SINONIMO ETA ANTONIMOEN HIZTEGIA.** Jon Urrujulegik egina (Elhuyar argitaletxea) 21.416 sarrera, 8.297 antonimo, 59.800 sinonimo eta 26.900 adiera dituen euskarazko hiztegia.

FITERORA!
Fiteroko bainu-etxean **bi lagunendako aste bukaera** zozketatuko dugu, urrian. Zorte on!

Viajes Eroski Bidaiak
Grupo Eroski
Laguntzailea

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Urte amaierara arteko harpidetza: **10** €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

010 zozketa **saridunak**

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Lurdes Larrañaga
Bergara
SARIA: KARIBERA BIDAIA

Umeendako liburu sorta:
- Maximo Letona (Arrasate)

Yelmo Cineplex-erako sarrerak:
- Agurtzane Azkarate (Bergara)
- Asier Ingidua (Aretxabaleta)
- Josu Toledo (Antzuola)
- Jose Luis Ezkurra (Arrasate)

Aquariumerako bi sarrera:
- Joseba Heriz (Arrasate)
- Josefina Abarrategi (Arrasate)
- Lorea Isasmendi (Aretxabaleta)
- Karmelo Kortabarria (Arrasate)
- Francisco Ansoategi (Arrasate)
- Isabel Sanchez (Bergara)

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a

TELEBERRIAK

TVEk eta Telecincok, biek batera emititukо dute Karlos Argiñanoren saioa

Karlos Argiñanoren jarraitzaileak zoratu egin daitezke datozen egunotan, sukaldariaren saioa non ikusi jakin ezinda. Izan ere, datorren astean, Karlos Argiñanoren programa TVEn zein Telecincon emango dute. Kontua da Argiñanok kontratu berria sinatu duela Telecincorekin, baina, era berean, TVEn lehenago grabatutako kapituluak ematen segituko dutela datozen 11 egunotan. Are gehiago, TVEko ordezkariek esandakoaren arabera, 14:00etatik 14:30era emititukо dute Argiñanoren saioa. Telecincok, berriz, iragarri du *Día a día* izeneko programaren barruan sartuko dutela, 14:00ak aldera emititzeko asmoarekin. Hortaz, litekeena da Karlos Argiñanoren programa ordu berean emititzea bi kateek.

Irailaren amaieran itzuliko da 'Goenkale' telesaila, kapitulu eta pertsonaia berriekin

Goenkale telesailak hamaikagarren denboraldia egingo du aurten ETB1en. Irailaren amaieran itzuliko da telesail hori gure pantailara, astelehenetik eguenera, 21:45ean, *Bertatik Bertara* saioaren ostean. Hala, kapitulu berriak ematen hasi aurretik, iazko denboraldiko azkenak emango dituzte.

OIHANE AGIRRE/ GOIENA TELEBISTAKO ZUZENDARIA

"Gazteei zuzendutako programazioa sendotzea da aurtengo helburua"

UBANE MADERA

Berritasunak datoz oraingo denboraldian ibarreko telebistara. Urrian aurkeztuko dute programazio berria, baina, GOITBko zuzendari Oihane Agirrek berritasunetako batzuk aurreratu dizkigu.

Esaterako, musikari eta gazteei begira zabiltzate programazioa antolatzen, ezta?

Bai, azken batean ikusten genuen hutsunea genuela gazte jendeari zuzendutako saiorik ez geneukalako. Eta Goiena Komunikazio Zerbitzuetatik alor hori bultzatu nahi izan dugu. Hala, esaterako, Debagoieneko maketa lehiaketa prestatzen gabiltza, Elgetako Goibekokale euskara elkartearekin elkarlanean; izan ere, Elgetako Espaloia izeneko kafe antzokian grabatuko dugu lehiaketa hori. Gauza da gure ibarrean musikari dagokionez, zimendu handia dagoela gazteen artean. Guk, gazte horiei lagundu gura diegu euren lana argitaratzen, eta maketa lehiaketa antolatu dugu. Lehiaketa horrek alde guztietan izango du oihartzuna: telebistan, irratian, prentsan eta Interneten. Baina batez ere telebistan. Izan ere, kontzertuak Espaloian zuzenean ikusteko aukera izateaz gain, astean telebistan emango ditugu. Urriaren 22an hasiko gara kontzertuekin. Hala, urriaren 25etik aurrera hasiko ginateke kontzertuok telebistaz emititzen. Eta gero, astean halako bi emango ditugu, ordu erdiko saio bat taldeko. Kontzertuaz gain, taldeen gaineko elkarrizketak izango dira taldea bera ezagutzeko. Era berean, asteroko bi egun horiez gain, gainerako hiru egunetan maketa lehiaketak jarraipena izango du telebistan. Modu horretan, besteak beste, ikusleek parte hartu ahal izango dute lehiaketan; izan ere, Ikusleen Saria ere izango da; hala, nahi duten ikusleek SMS bidez bozkatu ahal izango dute.

U.M.

"Berritasunetako bat unitate mugikorra da. Telebista ibiltaria sortu gura dugu"

"Aurten, urtarrilean saio berriak izango ditugu; tartean, haurrendako bat"

Bestalde, bestelako telebista kateekin elkarlanean ibili zarete, etorkizunera begira...

Bai. Azken batean herri telebistoi gertatzen zaiguna da produkzio propioa dugula. Hau da, saio guztiak guk ekoizten ditugu eta horren ondorioz gure emisio orduak murritzak dira. Jakina, gure helburua beti izaten da emisio orduok gehitzea. Baina, era berean, produkzio propioak goia jo du; ezin dugu askoz gehiago produzitu. Gauzak horrela euskarazko zazpi herri telebista elkarlanean hasi ginen eta orain aukera dugu gure artean zenbait saio elkartrukatzeko. Hala, adibidez, gure ikusleek aukera izango dute bestelako herri telebistetan egindako saioak GOITBn ikusteko. Era berean, zazpi herri telebistok ETBrekin harremanetan gabiltza, kate hori delako euskaraz materiala duen bakarra. Helburua da ETBtik saio gehiago eskuratzea eta oro har, gure emisio orduak handitzea. ETBri egingo zaion eskakizunen artean, guk ekoiztu ezin ditugun produktuak jaso gura ditugu: adibidez, gaztetxoendako marrazki bizidunak.

Edozelan ere, eta berritasun ugari izan arren, albistegiak oinarri izaten segituko dute GOITBn?

Bai, urritik aurrea informatiboak bi emanaldi izango ditu: arratsaldean (14:30ean) eta gauean (20:00an). Horrez gain, modu laburrean aurkeztutako *Gaurkoak* saioak aurten jarraitu egingo du. Azken batean informatiboak beti izango dira gure oinarri, hortxe batzen direlako eguneko gorabehera guztiak. Gainera, informatiboek, *Herriz Herri* eta *Astebete* saioek adibidez, itxura berria izango dute aurten, modernoagoa, telebista handien antzera.

Noiz estreinatuko duzue programazio berria?

Urriaren 4an, astelehena, hasiko gara.

LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACIÓN

geroari begira

HEZKUNTZA ALORREAN eskaintza 2004-2005 Ikasturterako

GRADUKO IKASKETAK

Irakasle Ikasketak

- Entzumena eta Mintzaira espezialitatea*
- Haur Hezkuntza espezialitatea*
- Hezkuntza Berezia espezialitatea*
- Atzerriko Hizkuntza espezialitatea*
- Hezkuntza Fisikoa espezialitatea

* 2. diplomatura egiteko aukera

Psikopedagogian Lizentzia (2.zikloko lizentzia)

- Hizkuntzen Psikopedagogia
- Eskuhartze Psikopedagogikoa

Bilbon nahiz Eskoriatzan. On-line eta presentziala.

GRADUATU ONDOKO IKASKETAK

On-line ikasteko aukera zabala

- Hezkuntza zentruen zuzendaritza* (masterra)
- Informaziorako eta komunikaziorako* teknologiak formazioan* (aditu ikastaroa eta masterra)
- Haur etorkinak euskarazko hezkuntza-sisteman (aditu ikastaroa) - Homologazio tramitean
- Hizkuntzen kudeaketa* (aditu ikastaroa)
- Prestakuntza pedagogikoa* (aditu ikastaroa)

*Irakasleentzako prestakuntza-ikastaro moduan Eusko Jaurlaritzak homologatuak

izena emateko epea Irailaren 1etik-15era

Informazio gehiago:

HUHEZI Koop.E.
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza

Tel: 943 714157
Faxa: 943 714032
e-maila: sarrera@huhezi.edu

www.huhezi.edu

MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.500 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2004ko irailaren 3a

Atzeskua

OIHANA ELORZA

Javi Roman/ Pegatina biltzailea

Badakizu zenbat pegatina dituzun gordeta guztira?

30.000 pegatina ezberdin baino gehiago ditut. Guztira zenbat ditudan zehazki esatea, ordea, zailagoa da, pegatina batzuk errepikatuta ditut-eta.

Nola sailkatzen dituzu?

Pegatina gehienak politikarekin zerikusia dutenak dira, eta horiek alderdika sailkatzen ditut. Hau da, alderdi politiko bakoitzak ateratako pegatinak elkarrekin gordetzen ditut.

Euskara edo ikastola aldarrikatzen dituztenak ere baditut, eta horiek beste multzo batean ditut.

Eta zein alderdik atera ditu pegatina gehien?

Ditudanak EAJk, EAk eta ezker abertzaleko alderdiek atera dituztenak dira, eta ez dago alde handirik batetik bestera.

Horiekin batera, baditut euskal presoak etxeratzeko eta autodeterminazioa eskatzeko PSOEk atera zituen pegatinak ere. Pegatinekin historian zer pasatu den ikusten duzu eta gizartean zein aldaketa gertatu diren.

Noiz hasi zinen pegatinak gordetzen?

Aspaldi. 1977an, Guardia Zibilak gelditu egin gintuen Bergaran, kalean, Telesforo Monzonen etxe ondoan. Gainean genituen pegatinak apurtu eta lurrera botatzeko agindu ziguten. Izugarrizko amorrua eman zidan, eta haiek joan zirenean, tokira bueltatu eta lurretik jaso nituen botatakoak.

Etxera joan eta gorde egin nituen; harrezkero, ikusten ditudan pegatina guztiak gordetzen ditut.

Eta nola gordetzen dituzu?

Hasieran, koadernoetan itsasten nituen. Orain, fitxategi handi batzuetan ditut, batzuk etxean eta beste batzuk ganbaran.

Noiz eta non lortu dituzun idazten diezu alboan?

Ez. Bakoitza non lortu dudan edo nork eman didan ondo oroitzen naiz.

Gehienak manifestazioetan, ekitaldi politikoetan eta jaietan eskuratu ditut. Euskal Herrikoak ez ezik, Kataluniakoak eta Espainiakoak ere baditut.

Eta oso ezberdinak dira duela 25 urtekoak eta egungo pegatinak, alderik badago?

Ez. Hala ere, gogoan dut Espainiako alderdi komunistak atera zituen pegatina batzuk: seiluen antza zuten, listuarekin itsatsi behar zenituen, eta noski, ez ziren alkandora edo jertsean itsasten, paperean baizik.

Bestalde, lehengo pegatinetan kolore gorria ikusten da asko. Gainera, orain baino askoz gehiago ateratzen zituzten lehen.

Pentsatu duzu bilduma informatizatzea?

Bai, zenbat ditudan eta ditudanak nolakoak diren ikusteko batez ere, kontsulta lanerako, batez ere. Denak eskaneatu behar ditut eta CD batera pasa baina horrek denbora luzea eskatzen du. Erretiratzen naizenean, agian.

Errekadista zara. Aprobetxatu dituzu bidaiak pegatinak lortu, erosi edo aldatzeko?

Ez askotan, baina bai.

“30.000 pegatina ezberdin baino gehiago ditut fitxategietan gordeta”

“Baditut euskal presoak etxeratzeko eta autodeterminazioa eskatzeko PSOE alderdiak atera zituen pegatinak ere”

“Lehen, kolore gorria askotan erabiltzen zuten. Oro har, pegatina gehiago zegoen”

► *Bergara / 43 urte / Errekadista*

PIPERRAUTSA

Espaloia

Abuztua etxean ematen dugunoi, berpiztu egiten zaizkigu sasoi honetan joera atzenduak. Patxadaz egotekoa, adibidez, probestuz presarik eza eta telefono/ordenagailuen mututasuna. Baita areagotzen da kuriositatea ere, aspaldi bisitatzeko daukagun toki horretara joateko gogoa, ohi bezala hutsean utzi gabe ezinaren ezinez.

Aurtengo kuriositate berpiztuak eraman nau Elgetako kafe antzokira, Espaloia izenekora. Izana nintzen lehenago, eraikina amaitu berritan, artean apaindu gabe. Eta oraingo tokia ikaragarri gustatu zait. Dekorazioa aproposa da, modernoa eta atsegina. Instalazio oso onak egin dituzte, argi eta soinurako, eta areto bikaina gelditu da formatu ertaineko emankizunetarako. Taberna eta jatetxeari ez diet propagandarik egingo, baina hauek osatu egiten dute Espaloiaren eskaintza. Azken gutizia: wi-fi sarea jarri dute etxe osoan, eta ordenagailu bat eskukoa erabiltzeko non-nahi.

Hiriburuan balego ere izango zen aipagarri, baina Espaloia Elgetan dago, mila biztanleko herri goienean. Eta herriko gazteek eman diote forma bikaina Udalak abiatutako egitasmoari, haiek kudeatuko dute. Horrek egiten du kasu hau eredugarri. Mendi puntan uztartu dituzte kultura, aisia, munduarekiko lotura, tragoa hartu edo afari pasada egiteko aukera, guztia patxadaz eta gehienbat euskaraz.

Eta Elgeta dago edozein hiriburu baino hurbilago.

MIKEL IRIZAR



Eraman dotoretasuna zure etxera

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51